

**DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOKO
EUSKERAREN EGOERAREN AZTERKETA**



Durangaldea, 2009

**DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOKO EUSKERAREN
EGOERAREN AZTERKETA**

Egilea : Rosa Okariz Moran

Durungaldea, 2009ko urtarrila

DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOKO EUSKERAREN EGOERAREN AZTERKETA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. AURKEZPENA	4
3. OINARRIZKO DATUAK	
Biztanleria	5
Adinaren arabera	9
Jatorriaren arabera	10
Lan jarduerak	12
4. HIZKUNTZA GAITASUNA	
Euskera maila	14
Euskera maila udalerrri bakoitzean	15
Euskera maila adinaren arabera	16
Hizkuntza bilakaera.....	18
Ama hizkuntza eta etxeko hizkuntza	20
5. HEZKUNTZA	
Irakaskuntza ereduak, herriaren arabera	22
Irakaskuntza ereduak, eskualdean	23
6. ONDORIOAK.....	24
7. HERRIETAKO DATU-BILKETA.....	28
8. DMA.....	54
9. ONDORIO NAGUSIAK	
Eskualde mailako irakurketa	56
Udalerrien gaineko irakurketa	60
10. EUSKERA ZERBITZUAREN IZAERAREN INGURUAN.....	63
ERANSKINAK.....	E
▪ Euskerako egitasmoak elkarlanean garatzeko	
▪ DMAko Udalak eta Euskera Zerbitzua: koordinazioa eta funtzioak	

SARRERA

Durango Merinaldearen Amankomunazgoko Euskera Zerbitzua eratzeko ekimena dela eta, txosten hau idatzi dugu eskualdeko euskeraren egoera aztertzeko.

Txostena honela dago garatuta:

- Ezaugarri soziolinguistikoen atala
- Herrietako datu-bilketa
- Amankomunazgoaren erakundearen gaineko datuak
- Ondorio nagusiak

Metodologia

Ezaugarri soziolinguistikoen iturriak datu estatistiko ofizialak izan dira.

Herrietako datu bilketarako, udaletako solaskideekin egin dira elkarrizketak eta Euskera Zerbitzua duten herrietan, solaskideak euskera teknikariak izan dira. Datuak 2008ko abenduan jaso dira.

Amankomunazgoaren datuak erakundeak berak eskaini ditu.

Amankomunazgoak hainbat esparrutan eskaintzen ditu zerbitzuak eskualdeari begira. Euskera Zerbitzuari dagokionez, beharrezkoa da helburuak zein funtzioak finkatzea:

- Hizkuntza normalkuntza prozesua Amankomunazgotik ere bultzatzea
- Euskeraren normalizaziorako, lan eremu, koordinazio eta eragin gune amankomuna izatea
- Merinaldeko baliabide eta proiektu guztien bilgune izatea

Honako hauek dira gure helburuak: Durangaldean euskeraren normalizazio prozesuari bultzada ematea eta prozesu horretan Amankomunazgoaren sustapena ere ziurtatzea. Horretarako lagungarria izatea da ikerlan honen zeregina.

Esker onak

Lan hau burutzeko lagun askoren laguntza jaso dugu. Hamaika herrietako udalei, eta, bereziki, euskera teknikariei, eskerrik beroenak.

Berbaro elkarteari, Debagoienako Euskera Zerbitzuari, Oarsoaldeko Euskera zerbitzuari..., besteak beste, eskerrik asko.

Kontsultarako txostenak:

Durango Merinaldearen Amankomunazgoko Egitasmoak 2002-2004
(Siadeco)

Durango Udalaren Euskeraren Egoeraren Diagnostikoa, 2008 (Erain)

Zaldibarko Udalerriko Euskeraren Egoeraren Diagnostikoa, 2008 (Erain)

AURKEZPENA

DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOKO EUSKERAREN EGOERAREN AZTERKETA



“Durangoko Merinalde zaharrak, Erdi Aroan Durangoko Konterria lez ezaguna, 230 km² inguruko lurralde bat hartzen du, bere mugak hauek direlarik: iparraldetik Markina eta Busturiako merinaldeak; hegoaldetik Aramaioko Konterri harana; sortaldetik Leintz arroa eta sartaldetik Zornotza eta Arratiako merinaldeak.

Lehenengo mendeetan, 1200. urtean Gaztelako erregeak menperatu arte, Nafarroako Erreinuaren barruan zegoen. 1212. urtean Gaztelako erregeak gure eskualdea oparitzen dio Bizkaiko Jaunari Nabas de Tolosako gudaldian emandako laguntzaren eskerronez. Durangaldeak mendeetan zehar bere bizi propioa egiten jarraitu zuen 1628. urtean Bizkaiko Jaurrerira sartu arte, nahiz

eta aurretik ere berarekin hartu-emon sakonak izan. Jaurerrira sartu arren, bere erakunde berezia mantentzen jarraitu zuen.



Durangaldea edo Durangaldeko eskualdea, Bizkaiko Lurralde Historiko eta



Euskal Autonomi
Elkarteko ederrenen
artean kontsideratzen
da.

Bilbo eta Goi eta Behe

Debako gipuzkoar haranen artean alde batetik eta Arabar lurren artean bestetik, Oizeko mendigunea –iparraldera- eta Otxandion dagoen Durangaldeko karegailurtzako mendibarren arteko lurraldea barruhartzen ditu.

Eskualdea, aintzinako Durangoko Merinaldea eratu zuten udalerriekin osatzen da: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar, eta baita aintzina batean Zornotzako Merinaldekoa zen Amorebieta-Etxano ere”.



Iturria: Gerediaga Elkarte

OINARRIZKO DATUAK

Ikerketa honetan hamaika udalerrri aztertu dira: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar.


3.1 Biztanleria

1. taula. DMAko biztanleria. 2008

UDALERRIAK	BIZTANLEAK	EHUNEKOA
Abadiño	7.366	12,7
Atxondo	1.464	2,5
Berriz	4.925	8,4
Durango	28.127	48,3
Elorrio	7.191	12,4
Garai	319	0,5
Iurreta	3.878	6,7
Izurtza	264	0,4
Mañaria	497	0,9
Otxandio	1.223	2,1
Zaldibar	3.022	5,1
Denera	58.276	100

Iturria: Udal Erroldak 2008ko datuak

1. grafikoa. DMAko biztanleria (%)



Iturria: Udal Erroldak 2008ko datuak

Durango da eskualde burua eta biztanle gehien duena. Bera da 10.000 biztanletik gorako udalerrri bakarra. Bertan Merinaldeko biztanleen ia erdia bizi

da (%48,3). Ondoren, Abadiño eta Elorrio datoz, herri biek biztanle proportzio berdintsua ematen dute ehunekoetan. Gainerako udalerrri guztiek 5.000 biztanle baino gutxiago dituzte (Atxondo, Berriz, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar). Generoa kontuan hartuta, nahiko parekoak dira kopuruak (emakumeak, 28.363 eta gizonak, 27.934, Bizkaia.net-Biztanleen erroldako datuen arabera (2006)).

Ikusiko ditugu, orain, aurreko urteetako zenbait datu.

2. taula. Biztanleriaren bilakaera (1996-2001-2008)

Durangoko Merinaldea	Hazkundera				Hazkundera		
	1996	2001	(96-01)	Hazkundera%	2008	(01-08)	Hazkundera%
Abadiño	6.897	6.843	-54	-0,78	7.366	523	7,6
Atxondo	1.490	1.427	-63	-4,23	1.464	37	2,5
Berriz	4.099	4.312	213	5,2	4.925	613	14,2
Durango	23.909	25.003	1.194	4,5	28.127	3.124	12,4
Elorrio	7.338	7.157	-181	-2,47	7.191	34	0,47
Garai	244	252	8	3,28	319	67	26,5
Iurreta	4.483	4.144	-339	-7,56	3.878	-266	-6,4
Izurtza	277	266	-11	-3,97	264	-2	-0,7
Mañaria	473	453	-20	-4,23	497	44	9,7
Otxandio	1.046	1.017	-29	-2,77	1.223	206	20
Zaldibar	3.050	2.877	-173	-5,67	3.022	145	5
Denera	48.963	53.751	4.778	9,7	58.276	4.525	8,4

Iturriak: Eustat.- Lurralde-eremuaren araberrako biztanleak eta Udal erroldak

Biztanleriaren bilakaerari dagokionez, 2. taulako datuak ikusita, ondoko ondorioak atera daitezke: 1996-2001 bitartean Merinaldeak biztanleen %9,7 irabazi zuen, eta 2001-2008 bitartean, aldiz, %8,4. Azkeneko urteetan herrietan izaten zen biztanleen galera gelditu egin da eta biztanleriak gora egin du (Iurretan eta Izurtzan izan ezik). Durangon izan den biztanleen igoerak eskualdeko biztanleriari gorantz eragin dio.

Beraz, 2008ko datuei erreparatuta, nabarmena da lehengo joera aldatu egin dela udalerrri gehienetan eta aurreko urteetan hazkunde tasa negatiboa eman duten herri gehienek berreskurapena izan dutela.

Durango inguruko herrietako biztanleek, poliki-poliki, etengabeko migrazioa egin zuten joan den hamarkadan eta orain, berriz, eutsi egiten diote biztanle kopuruari (salbuespenak salbu). Lehen bezala, urtez urte biztanle berriak ailegatzeko ari dira Durangora eta gaur egun, inguruko herrietakoak ez ezik bestelako migrazioak ere jasotzen ari da.

3.2 Biztanleria, adinaren arabera


3. taula. Biztanleria, adinaren arabera (osoak eta ehunekoak)

udalerrria	biztanleak	0-9	10-19	20-34	35-49	50-64	65etik gora
Abadiño	7.162	613 (%8,6)	584 (%8,2)	1910 (%26,7)	1693 (%23,6)	1.455 (%20,3)	907 (%12,7)
Atxondo	1.440	104 (%7,2)	162 (%11,3)	339 (%23,5)	335 (%23,3)	303 (%21,0)	197 (%13,7)
Berriz	4.687	405 (%8,6)	383 (%8,2)	1222 (%26,1)	1102 (%23,5)	806 (%17,2)	769 (%16,4)
Durango	27.014	2.729 (%10,1)	2.428 (%9,0)	5.960 (%22,1)	7.111 (%26,3)	4.498 (%16,7)	4.288 (%15,9)
Elorrio	7.118	605 (%8,5)	588 (%8,3)	1.393 (%19,6)	1753 (%24,6)	1.347 (%18,9)	1.432 (%20,1)
Garai	279	24 (%8,6)	16 (%5,7)	56 (%20,1)	82 (%29,4)	52 (%18,6)	49 (%17,6)
Iurreta	3.910	275 (%7,0)	283 (%7,2)	934 (%23,9)	895 (%22,9)	769 (%19,7)	754 (%19,3)
Izurtza	250	10 (%4,0)	17 (%6,8)	51 (%20,4)	60 (%24,0)	51 (%20,4)	61 (%24,4)
Mañaria	459	26 (%5,7)	41 (%8,9)	94 (%20,5)	111 (%24,2)	96 (%20,9)	91 (%19,8)
Otxandio	1.104	92 (%8,3)	68 (%6,2)	242 (%21,9)	242 (%21,9)	208 (%18,8)	252 (%22,8)
Zaldibar	2.874	219 (%7,6)	231 (%8,0)	665 (%23,1)	661 (%23,0)	592 (%20,6)	506 (%17,6)
Denera	56.297	5.102 (%9,1)	4.801 (%8,5)	12.866 (%22,9)	14.045 (%24,9)	10.177 (%18,1)	9.306 (%16,5)

Iturria: Bizkaia.net (2006ko datuak)

Egindako tarteei erreparatuz gero, tarte handiena 35 eta 49 urte bitartekoei dagokiela ikusi daiteke. Horixe da nabarmentzen den tarte lau udalerritan: Durangon (%26,3), Elorrian (%24,6), Garain (29,4) eta Mañarian (%24,2). Izurtzan 35-49 tartekoaren (%24) eta 65etik gorakoaren kopuruak (%24,4) ia berdinak dira, Zaldibarren beste horrenbeste gertatzen da 20-34 (%23,1) eta 35-49 (%23) adin tarteekin eta Atxondon ere bai (20-34 tartean, %23,5 eta 35-49 tartean, %23,3). Otxandion 65 urtetik gorakoaren proportzioak dauka pisu gehien (%22,8) eta 20-34 urte bitartekoaren kopurua Abadiñon (%26,7), Berrizen (%26,1) eta Iurretan (%23,9) nagusitzen da. Bestalde, umeen eta gaztetxoaren kopuruak herri guztietan txikiak dira.

2. grafikoa. Biztanleria, adinaren arabera (osoak eta ehunekoak)



Iturria: Bizkaia.net (2006ko datuak)

3.3 Biztanleria, jatorriaren arabera

4.a taula. Biztanleria jaiotako lekuaren arabera (osoak eta ehunekoak)

Heria	Biztanleak	Udalerrria	Bizkaia	Estatua	Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa	Estatutik kanpo
ABADIÑO	7.162	2.552(%35,6)	2.230(%31,1)	1.671(%23,3)	445(%6,2)	264(%3,6)
ATXONDO	1.440	572(%39,7)	484(%33,6)	262(%18)	73(%5)	49(3,4)
BERRIZ	4.687	1.396(%29,7)	1.622(%34,6)	986(%21)	460(%9,8)	223(%4,7)
DURANGO	27.014	10.798(%40)	8.272(%30,6)	4.849(%18)	1.729(%6,4)	1.366(%5)
ELORRIO	7.118	3.621(%50,8)	1.341(%18,8)	1.401(%19,6)	587(%8,2)	168(%0,9)
GARAI	279	134(%48)	103(%36,9)	12(%4,3)	22(%7,8)	8(%2,8)
IURRETA	3.910	830(%21,2)	1756(%44,9)	1017(%26)	140(%3,5)	167(%4,2)
IZURTZA	250	112(%44,8)	107(%42,8)	17(%6,8)	8(%3,2)	6(%2,4)
MAÑARIA	459	270(%58,8)	139(%30,2)	14(%3)	22(%4,7)	14(%3)
OTXANDIO	1.104	463(%41,9)	212(%19,2)	103(%9,3)	289(%26)	37(%3,3)
ZALDIBAR	2.874	867(%30)	890(%30,9)	683(%23,7)	313(%10,8)	121(%4,2)
Denera	56.297	21.615(%38)	17.156(%30,4)	11.015(%19,5)	4.088(%7,2)	2.423(%4,3)

Iturria: Bizkaia.net (2006ko datuak)

4. taulan, erroldatuta dauden biztanleen gaineko datuak ditugu (2006koak), jaioterriaren arabera. Kopuru handiena udalerrian bertan jaiotako biztanleekin lotuta dago, hiru salbuespenekin: Berriz, Iurreta eta Zaldibar. Azken hauetan Bizkaiko kopurua da handiena, biztanleen %34,6, %44,9 eta %30,9, hurrenez hurren. Estatuan jaiotakoak hirugarren kopuruan daude ia herri guztietan (Elorrio eta Iurretan, baina, bigarren kopurua dira). Atzerritarren kopuru handiena Durangon dago (%5). 4.b taulan Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan jaiotakoak ikusten ditugu.


4.b taula. Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan jaiotakoak (Bizkaia.net, 2006ko datuak)

Heria	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa
ABADIÑO	38	381	26
ATXONDO	10	61	2
BERRIZ	35	403	22
DURANGO	247	1260	222
ELORRIO	52	440	95
GARAI	3	19	
IURRETA	16	115	9
IZURTZA	1	6	1
MAÑARIA	9	13	
OTXANDIO	260	25	4
ZALDIBAR	28	259	26
Denera	699	2.982	407

3. grafikoan Amankomunazgoaren ehunekoak ditugu. Herri guztietako datuak batu eta gero, udalerrian bertan jaiotakoak %38,4 dira eta Bizkaiko beste herrietakoen kopurua %30,5 da. Hirugarrenik, estatuko herrialdeetako kopurua dago (%19,6), eta proportzio askoz txikiagoan Araba, Gipuzkoa eta Nafarroakoak (%7,2) eta estatutik kanpokoak ditugu (%4,3).

Ezaugarri hauek, soziodemografikoak izateaz gain, soziolinguistikoak ere badirenez, hizkuntzak izandako bilakaeraren eragileak ere badira. Bestalde, inmigrazioa dela eta, gaur egun hiztun komunitate askotarikoa topatu dezakegu Amankomunazgoko herriotan, eta horrela, hizkuntza bik osatzen zuten ereduan nolabaiteko aldaketa gertatu daitekeela ondorioztatu daiteke, hau da, lehen *elebitasuna* (euskera eta gaztelera) zegoen lekuan, orain eleaniztasuna egon daiteke. Hala ere, etorkin gehienak Hego Amerikatik datozenez eta gainerakoek gaztelera ikasten dutenez, aniztasunaren barruan gaztelera indartu egin daitekeela dirudi, gainontzeko hizkuntzekin erkatuta.

3. grafikoa. Biztanleria, jaioterriaren arabera (ehunekoak)



Iturria: Bizkaia.net (2006)

3.4 Lan jarduerak

Lan eta jarduera nagusiak

“Durangaldean XX. mendearen azken urteetan, eta batez ere mende honetako garapen industrialaren ondorioz -60ko urteetan areagotu den garapena-, lehenengotan baserrialdeak zirenak hirigune bilakatu dira.

Lau arlo izan dira, historiaren aldetik, Durangoko Merinaldean landu diren arlo ekonomikoak. Alde batetik, basoak ustiatzea, bai zuhaitzak botatzeko, bai egurrarekin ikatza egiteko. Bestetik, baserriak ematen duena ustiatzea (nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzeak baserri giroa ekarri du eta, batez ere, baserriari lotuta bizitzea). XX. mendearen hastapenean industrializazioa hasi zen Durangaldean, galdaketa edo fundizioari lotuta gehienbat, eta gero piezak mekanizatzeko prozesuari.

Azken urteotako krisialdi ekonomikoak enpresa historiko asko desagertzea ekarri du; aipatutako jarduerak egin beharrean, gaur egun beste jarduera askotarikoak gauzatzen dira enpresa horietan, baina oraindano ere eskualdeko ekonomia galdaketarekin eta burdinazko produktuak lantzearekin dago lotuta”.
(DMAko gidaliburutik hartuta).

5. taula. Lan-jarduerak

Merinaldea. 2001eko datuak		
sektorea	ehunekoa	kopurua
zerbitzuak	%49	11.303
industria	%44	10.087
eraikuntza	%6	1.274
nekazaritza	%1	307

Iturria: EUSTAT

Eustat: 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, jarduera-adarren arabera (2001) iturritzat hartuta, lan jarduerak aztertuko ditugu, urte horretako datuak ditugulako eskuragarri. Datuak

kontuan harturik, *zerbitzuak* da proportzio handiena ematen duen sektorea (%49). Bigarrena, *industria* (%44), eta oso kopuru txikietan, *eraikuntza* (%5,6) eta *nekazaritza* (%1,4).

Zerbitzuak sektore nagusizat dutenak (6. taularen arabera), Durango (%55,3), Garai (%62,7), Iurreta (%46), Izurtza (%53,4) eta Mañaria (%58,8) dira. Abadiñon, Atxondon, Berrizen, Elorrión, Otxandion eta Zaldibarren, berriz, *industria* da sektore nagusia.

6. taula. Lan-jarduerak, herriaren arabera

16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, lurralde-eremuka, jarduera-adarren arabera. 2001

herriak	guztira	nekazaritza	industria	eraikuntza	zerbitzuak
Abadiño	3.033	54	1.475	234	1.270
Atxondo	612	23	287	53	249
Berriz	1.877	34	947	78	818
Durango	10.309	66	4.012	521	5.710
Elorrio	3.181	42	1.492	163	1.484
Garai	118	5	36	3	74
Iurreta	1.744	29	794	118	803
Izurtza	116	2	43	9	62
Mañaria	204	3	63	22	116
Otxandio	439	13	228	14	184
Zaldibar	1.338	36	710	59	533
Merinaldea	22.971	307	10.087	1.274	11.303

Iturria: Eustat (2001)

Bestalde, 1996ko datuekin alderatuz (11 udalerriak kontuan hartuta, Durangoko Merinaldearen diagnostikoaren eta Eustaten arabera), esan behar da Durangon (%51,8), Garain (%59) eta Izurtzan (%49) *zerbitzuak* zela sektore nagusia 1996an, gainontzeko guztietan, aldiz, industria zen nagusia. Iurreta eta Mañariko sektore nagusia, beraz, industria izatetik zerbitzuak izatera aldatu da (Iurretan, *zerbitzuak* kopurua 1996an, %43,9 zen eta 2001ean, %46; eta Mañariko kopurua, 1996an, %35 eta 2001ean, %58,8). Merinaldean, 1996ko kopuru orokorrak ikusita, badirudi jarduera ekonomikoen bilakaeran *zerbitzu* sektorea indartu egin dela besteekiko eta industria sektoreari aurrea hartu diola, baina herriz herri ikusita, antzematen da Durangoko kopuruak nabarmen igotzen duela kopuru orokorra. Beraz, Durangon ez ezik beste herri batzuetan ere indartu egin da zerbitzuen sektorea. Aldaketa horri buruzko hausnarketa egin behar dugu, hau da, industria-gune izatetik zerbitzu-gune izatera pasatzeak zertan eragiten dion hizkuntzari.

HIZKUNTZA GAITASUNA

4.1 Euskera maila

7. taula. Euskera maila

Euskera maila globala. (2 urte eta gehiagoko bizt.)	
DMA 2006 (%)	
Euskaldunak	52
Ia-euskaldunak	22
Erdaldunak	26

Iturria: Eustat

Eustatek emandako datuen arabera, 2006an, Merinaldeko biztanleen erdia baino gehiago (%52) euskaldunak dira, biztanleen %22 ia euskaldunak (euskeraz nekez ulertzen eta edo hitz egiten dutenak) dira eta gainerakoak, %26, erdaldunak. Kopuru hauek Bizkaikoekin konparatuz, egoera soziolinguistiko ezberdina islatzen dutela igartzen da. Izan ere, Bizkaiko datuak ondoko hauek ditugu: euskaldunak, %31,4; ia euskaldunak: %23; erdaldunak: %45,6. Bestalde, erreferentziazko eskualdea den Gernika-Bermeo hartuko dugu datuak erkatzeko. Gernika-Bermeoko eskualdean (Eustatek hartutako lurralde-irizpidea, 43.909 biztanlerekin), %72,6 euskaldunak dira, %16,55 ia euskaldunak eta %18,8 erdaldunak. Beraz, datuei begira, Bizkaiko eta Gernika-Bermeoko datuekin erkatuta, DMA bi egoera soziolinguistiko horien artean erdibidean dago, hau da, Bizkaian baino euskaldun proportzio handiagoa eta Gernika-Bermeon baino txikiagoa.

8. taula. Euskaldunen kopurua, udalerrriaren arabera

DMAko euskaldunen kopurua, udalerrriaren arabera

udalerrria	ehunekoa	kopurua
Abadiño	12	3.525
Atxondo	3	923
Berriz	9	2.507
Durango	45	13.117
Elorrio	14	4.034
Garai	1	236
Iurreta	6	1.839
Izurtza	1	198
Mañaria	1	395
Otxandio	3	800
Zaldibar	5	1.365
denera	100	28.939

Iturria: EUSTAT (2006)

8. taulan zera ikusten dugu: udalerrri bakoitzak duen proportzioa DMAko euskaldun kopuruan. Durangok, biztanleria kopuru handiatatik, ehuneko handiena ematen du. Durangoren ostean, Elorrio (%14), Abadiño (%12) eta Berriz (%9) datoz.

4.2 Euskera maila udalerrri bakoitzean


Herriz herri ikusita (9. taula eta 4. grafikoan), biztanleriarekiko proportzioan, euskaldun kopuru handiena Mañarian topatzen dugu (%88,36), eta ondoren, Izurtzan eta Garain (%81 eta %80,8), hala ere, bakoitzak DMAko euskaldun kopuruaren %1 baino ez du osatzen. Herri hauek Amankomunazgoko kopurua (%52) erraz gainditzen dute. Beste muturrean Durango (%48), Iurreta (%49,2) eta Abadiño (%51) kokatzen dira, eskualdeko ehunekotik beherago. Beraz, euskaldun izaera izanda be, Amankomunazgoa heterogeneoa da.

9. taula. 2 urte eta gehiagoko biztanleria, euskera mailaren arabera udalerrri bakoitzean

2 urte eta gehiagoko biztanleria, udalerrriaren eta euskara maila orokorraren arabera				
	euskaldunak	ia euskaldunak	erdaldunak	denera
Abadiño	3525 (%51)	1561(%22,5)	1829(%26,5)	6.915
Atxondo	923 (%66)	162(%11,6)	311(%22,3)	1.396
Berriz	2507(%54,7)	852(%18,5)	1233(%26,8)	4.592
Durango	13117 (%48)	6956(%26)	7009(%26)	27.082
Elorrio	4034 (%58,6)	1200(%17,4)	1647(%24)	6.881
Garai	236(%80,8)	40(%13,7)	16(%5,5)	292
Iurreta	1839 (%49,2)	808(%21,62)	1090(%29,28)	3.737
Izurtza	198 (%81,14)	21(%8,6)	25(%10,25)	244
Mañaria	395 (%88,36)	34(%7,6)	18(%4,04)	447
Otxandio	800 (%70,2)	180(%15,8)	159(%13,97)	1.139
Zaldibar	1365 (%49)	570(%20,4)	855(%30,6)	2.790

Iturria: Eustat. Biztanleria eta Etxebizitza estatistika. 2006

4. grafikoa. 2 urte eta gehiagoko biztanleria, euskera mailaren arabera udalerrri bakoitzean



Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika. 2006

4.3 Euskera maila adinaren arabera

10. taula. Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera

DMA: Hizkuntza-gaitasuna (>=5 urte), adinaren arabera, 2001

	5-19 urte	20-34 urte	35-49 urte	50-64 urte	65etik gora
elebidunak	6.382 %24	6.588 %25	5.223 %20	3.650 %14	4.431 %17
elebidun hartzaileak	893 %11	3.423 %41	2.460 %30	953 %11	609 %7
erdaldun elebakarrak	558 %3,3	3.194 %19,3	4.962 %30	4.537 %27,4	3.257 %20


Iturria: EAS (Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema)

Adin-tarteak aztertuko ditugu, adinaren eta hizkuntza gaitasunaren arteko erlazioa ikusteko. *Elebidunak* multzoan (euskaldunak hemen daude sartuta) 20-34 urte bitarteko adin-tartea nagusitzen da (%25), nahiz eta 5-19 urte bitarteko tartekak ia kopuru berdina ematen duen (%24).

Elebidun hartzaileen kopuru nagusia 20-34 tartean dago, (%41). Elebidun hartzaileak (“euskeraz “nekez” hitz egin edo, hitz egin ez arren, “ondo” ulertu edo irakurtzen dutenak”, Hizkuntza Politika Sailburuordetzako definizioaren arabera), 35-49 urtekoen artean ere kopuru handian topatzen ditugu (%30).

Erdaldun elebakarrak, batez ere 35 eta 49 urte bitartean daude. Honi buruz ez dugu ahaztu behar tarte horretakoak umeak eduki edo hazi eta hezteko sasoian egonda, oso kontuan hartzekoak direla hizkuntza plangintzari begira.

5. grafikoa. Hizkuntza gaitasuna (>=5 urte) adinaren arabera (ehunekoak). 2001



Iturria: EAS (Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema)

Elebidunak aldagaian, gazteen portzentaje altua begi-bistakoa da. Portzentaje hau hezkuntza ereduaren emaitza dela kontuan hartzen badugu, gaitasuna bermatuta dagoen arren, *erabilera* arloa izan litekeela ahulena pentsatu dezakegu, izan ere, euskera mailak ez du, inondik inora, erabilera ziurtatzen.

Horrela ikusiko da, esaterako, beste atal batean *ama hizkuntza* eta *etxe* *hizkuntza* alderatzen ditugunean. Bestelako kontuek baldintzatzen dute euskeraren erabilera, hala nola, ingurune euskaldunean bizi ala ez, eskolatik kanpo euskeraz berba egiteko ohiturarik dagoen, etab. Horregatik, adin-tarte hauek harrobia izanik, jarraipen sakonagoa egin beharko litzateke erabileraren inguruko datuak hobeto ezagutzeko.

4.4 Hizkuntzaren bilakaera

Hizkuntza bilakaera ikusteko, hainbat urtetako datuak aztertuko ditugu. Eustat iturritzat hartuta, ikusitako hiru multzoetan (euskaldunak, ia euskaldunak, erdaldunak) ematen diren kopuruak beheko taulan daude ikusgai.

11. taula. Hizkuntza bilakaera

	DMA (ehunekoak)			
	1981	1986	1996	2006
euskaldunak	41	43	50	52
ia euskaldunak	14	14	14	22
erdaldunak	45	43	36	26

Iturria: EUSTAT


Portzentajeak aztertuta, euskaldun multzoari dagokionez, poliki eta etengabe gora doala nabaritzen da. Lehen bost urteetan (81-86), 2 puntu

gora egin zuen kopuruak; ondorengo hamarkadan, 7 puntu, eta azkeneko hamarkadan, beste bi.

Gainera datuok bat datoz beste multzoetako kopuruokin. Izan ere, *erdaldunak* multzoan, lehen denbora tartean kopuruak 2 puntuko beherakada egin zuen, bigarren tartean, berriz, 7, eta azkenekoan, 10. Beraz, ondorioztatu daiteke aldaketa kualitatibo nabarmena 86-96 hamarkadan eman zela, erdaldun kopurutik euskaldun kopurura eman baitzen portzentaje aldaketa.

Bestalde, azkeneko tartean, erdaldun multzoaren beherakada batez ere *ia euskaldunak* kopuruaren igoeran islatzen da (aurrekoan euskaldun kopuruan islatu zen moduan). Irakurketa honek 86-96 hamarkadan gertatu zen aurrerakada azpimarratzen du, bide batez, orduko egoera soziolinguistikoaren ingurumariak eta hartu ziren normalizazio neurriak -besteak beste, D ereduan eskolaratzea- eraginkorrak izan zirela nabarmentzeko.

6. grafikoa. Hizkuntza bilakaera



Iturria: EUSTAT

6. grafikoa hiru multzoetako bilakaera azaltzen da. Nabaria denez, behera egiten duen marra erdaldun kopuruari dagokio, eta horixe da azken bi hamarkadetan etengabe portzentajea jaisten doana. Beste bi marrak gora eginez ageri dira, nahiz eta euskaldun multzoaren gorakada asko moteldu den azken hamarkadan.

Azken denbora-tartean *ia euskaldunak* eta *erdaldunak* multzoek bat egiten dute kopuruari dagokionez. Grafikoaren hasieran marra hauen arteko aldea ikusita, ondorioztatu daiteke 86-96 tartean erdaldunen multzotik *euskaldunak* multzora eman zela jauzia, 89-2006 tartean, ostera, *ia euskaldunak* multzora aldatu zen kopuru handiagoa *euskaldunak* multzora baino.

4.5 Ama hizkuntza eta etxeko hizkuntza

12. taula. Biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera. 2006

	Guztira	Ama hizkuntza				Etxeko hizkuntza			
		euskera	gaztelania	biak	beste bat	euskera	gaztelania	biak	beste bat
Abadiño	7.144	2.477	4.014	419	234	1.752	4.428	905	59
Atxondo	1.435	725	630	66	14	512	642	271	10
Berriz	4.771	1.798	2.576	263	134	1.267	2.779	681	44
Durango	27.925	8.154	16.693	2.318	760	4.829	18.716	4.017	363
Elorrio	7.075	3.131	3331	529	84	2.215	3.605	1.219	36
Garai	302	218	61	14	9	163	71	66	2
Iurreta	3.833	1.341	2.196	185	111	943	2372	484	34
Izurtza	248	191	49	5	3	134	62	52	0
Mañaria	456	354	79	18	5	249	98	109	0
Otxandio	1.172	633	406	117	16	447	480	235	10
Zaldibar	2.864	989	1.668	143	64	689	1.839	314	22
Denera	57.225	20.011	31.703	4.077	1.434	13.200	35.092	8.353	580

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika. 2006

12. taulan, Eustatek emandako datuak ditugu, 2006koak, alegia. Biztanleriaren kopuruak ikusgai ditugu, *ama hizkuntza* eta *etxeko hizkuntza* aldagaietan.

13. taulan, kopuruak ditugu eskualde osorako.

13. taula. Ama hizkuntza eta etxeko hizkuntza

Ama hizkuntza eta etxeko hizkuntza % (DMA)

DMA (%)	euskara eta			
	euskara	gaztelania	gaztelania	beste bat
Ama hizkuntza	35	7	56	2
Etxeko hizkuntza	23	15	62	1

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika (2006)

Horrela, euskera, DMAko biztanleen %35en ama hizkuntza izanik, jatorriz elebidunak direnen kopurua gehituta (%7), jatorriz euskaldun edo elebidunak direnak %42 dela ikusi daiteke. Ama-hizkuntza gaztelania dutenak, berriz, %56 dira.

Etxeko hizkuntza aldagaiari begiratzuz gero, euskerazko portzentajea aurreko aldagaiarekiko jaitsi egin dela argi dago, eta gaztelera edo hizkuntza biak erabiltzea, ostera, ama-hizkuntzaren proportzioaren gaineratik kokatzen da. Izan ere, euskera ama hizkuntza duten askok berba egiterakoan euskera zein gaztelera edo gaztelera soilik erabiltzen dute. Azkenik, ama hizkuntza *beste hizkuntza bat* dutenen ia erdiak ere gaztelera hitz egiten du etxean. Gainera, aipatu diren joerak udalerrri guztietan gertatzen dira, proportzio handiagoan edo txikiagoan, herriaren arabera.

Laburbilduz, etxean euskera hitz egiten dutenen proportzioa txikiagoa da ama hizkuntza euskera daukatenean baino, eta hau, zalantza barik, euskeraren egoeraren adierazlea dela esan behar dugu, aintzat hartuta etxea dela euskeraz hitz egiteko eremu handienetakoa.

HEZKUNTZA

5.1 Irakaskuntza ereduak, herriaren arabera

14. taula. Irakaskuntza ereduak, herriaren arabera

Irakaskuntza ereduak hezkuntza mailaren arabera (%) 2006/07

	Haur hezkuntza		Lehen hezkuntza		DBH		Batxilergoa			Lanbide Heziketa		
	B	D	B	D	B	D	A	B	D	A	B	D
Abadiño	16	265	49	193	65	115						
Atxondo		27		40								
Berriz		198		177		142						
Durango	424	1.100	572	1.113	390	662	141	77	608	15	251	73
Elorrio		343		359		268						
Garai												
Iurreta		116		120		180			87	23		207
Izurtza												
Mañaria												
Otxandio		42		52								
Zaldibar		118		118								

Iturria: EUSTAT. Hezkuntza Saila

14. taulan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko datuak ditugu, 2006/07 ikasturtekoak, Eustatek emanda, herri bakoitzean. 15. taulan, berriz, datu orokorrak ikusten ditugu. DMAko hezkuntza mailetan D ereduak da nagusi, batez ere Haur Hezkuntzan: %83,4. Modu berean, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan ere D ereduaren proportzio handia dugu (hiru heren). Lanbide Heziketan, berriz, bestelako egoera ematen da, D ereduaren proportzioa erdia izanik, eremu erdaldunena dela esan dezakegu.

5.6. Irakaskuntza ereduak, eskualdean

15. taula. Irakaskuntza ereduak


DMA:Irakaskuntza ereduak hezkuntza mailaren arabera (osoak eta %) 2006/07

	A ereduak	B ereduak	D ereduak	A ereduak	B ereduak	D ereduak
Haur hezkuntza		440	2.209		%16,6	%83,4
Lehen hezkuntza		621	2.172		%22,2	%77,8
DBH		455	1.367		%25	%75
Batxilergoa	141	77	695	%15,5	%8,5	%76
Lanbide heziketa	38	251	280	%6,7	%44	%49,3

Iturria: Eustat. Hezkuntza Saila.

7. grafikoa. Irakaskuntza ereduak

DMA:Irakaskuntza ereduak hezkuntza mailaren arabera (ehunekoak) 2006/07



Honen harira, Hezkuntzako txostenetan Lanbide Heziketan D ereduak bultzatzeko premia azpimarratzen da (Eustat - Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila).

ONDORIOAK

Udalerrion ezaugarriak kontuan harturik, egoera soziodemografikoa berezia dela aipatu daiteke. Izan ere, biztanleen ia erdia Durangon bizi da (%48); Ondoren, Abadiño (%12,7) eta Elorrio (%12,4) datoz. Gero, Berriz (%8,4), Iurreta (%6,7). Zaldibar (%5,1), Atxondo (%2,5) eta Otxandio (%2,1) eta kopuru txikiekin, Mañaria (%0,9), Garai (%0,5) eta Izurtza (%0,4).

Biztanle dentsitateak, beraz, arras ezberdinak dira.

	Abadiño	Atxondo	Berriz	Durango	Elorrio	Garai	Iurreta	Izurtza	Mañaria	Otxandio	Zaldibar
Km ²	36,26	23,41	29,95	10,79	37,40	7,06	18,84	4,32	17,63	12,43	11,84
dentsitatea	203	63	164	2607	192	45	206	61	28	98	255

Biztanle kopuruan ez ezik azpiegituretan ere ezberdintasun nabarmena dago herrien artean. Heziketa azpiegiturek, osasun, lan eta merkataritza gune gehienak Durangon kokatzen dira. Durangok du, beraz, lehentasuna baliabide sareari dagokionez, eta euskeraren sustapenerako ere, berebiziko garrantzia dauka eskualdean.

Bestalde, Durangorekiko dependentzia dela eta, inguruko herriek Durango elikatzen dute (zentro-periferia moduko ereduan), eta, modu berean, Durangon euskeraren sustapenerako ekoizten eta eskaintzen denak erakarpen berezia sortzen du ingurukoetan. Indar hori onuragarria izanda ere, Merinaldeko udalerrri guztien parte hartzea eta lankidetzak oinarritzat duen eredia bultzatu beharra dago, euskeraren inguruko egitasmo asko herri guztietan egingarriak izan daitezzen.

Aldagai soziodemografikoetan ondokoak dira ezaugarri nagusiak:

Genero aldagaiari dagokionez, pareko multzoak ditugu herri guztietan (Bizkaia.net, 2006). Adinari begira, 35-49 tarteak da ugariena (%25), ondoren

20-34 tartea (%22,9), gero 50-64 (%18,1), hurrengoa 65etik gorakoa (%16,5) eta azkenak gazteen taldeak: 0-9 (%9) eta 10-19 urteko tartea (%8,5).

Jaioterriari begira, udalerrian jaiotakoena da talde ugariena (%39), ondoren Bizkaian jaiotakoak (%30), nahiz eta Elorrion eta lurretan estatuan jaiotakoak bigarren kopuruan egon; lurretan, gainera, aparteko egoera ematen da. Bizkaia.net iturriaren arabera, Bizkaiko eta estatuko kopuruak dira handiagoak herrian jaiotakoak baino.

Hizkuntzari dagokionez, hartutako udalerrietako lurraldean, Eustaten arabera, 2 urte eta gehiagoko biztanleria hartuta, %52 dira euskaldunak, %22 ia euskaldunak (edo elebidun hartzaileak, hau da, euskeraz “nekez” hitz egin edo, hitz egin ez arren, “ondo” ulertu edo irakurtzen dutenak) eta %26 erdaldun elebakarrak.

Durango biztanle kopurua hain handia izanik, eskualdeko euskaldun kopuruari begira, proportzio handiena bertan dago (%45), ondoren, Elorrion (%14), Abadiñon (%12) eta Berrizen (%9). Hala ere, herri txikiak dira euskaldunenak euren biztanleriarekiko. Lehenengo eta behin, Mañaria, 395 biztanle euskaldun dituena (biztanleen %88,3); ondoren, Izurtza: 198 (%81,1) eta azkenik, Garai: 326 (%80,8). Erdaldun proportzio handiena Zaldibarrek ematen du, biztanleen %30,6 erdaldun multzoan baitago, ondoren, lurreta (%29,2), Berriz (26,8), Abadiño (%26,5) eta Durango (%26).

11 udalerrietako lurraldean, ia-euskaldunak (euskeraz nekez ulertzen eta edo hitz egiten dutenak) %22 dira. Herriz herri, Durango (%26), Abadiñon (%22,5) eta lurretan (%21,62) ematen da kopururik handiena.

Hizkuntza bilakaera:

Euskaldun kopuruak gora egin du, aztertutako azken bi hamarkadetan, 9 puntu (86-96 tartean, 7 puntu eta 96-2006 tartean, bi puntu). *la euskaldunak* kopurua asko igo da azken hamarkadan, 8 puntu. *Erdaldunak* multzoak, berriz, behera egin du nabarmen: 10 puntu.

Hizkuntzaren erabilera datu esanguratsu eta deigarria da. Biztanleen %62k gazteleraz egiten dute etxean, euskeraz %23k egiten dute, eta euskera eta gazteleraz, %15ek. Ondokoak dira ama-hizkuntza aldagaiaren kopuruak: gaztelera, %56; euskera, %35, euskera eta gaztelania, %7, eta beste bat, %2.

Hizkuntza ohiturak direla eta, ondorioztatu daiteke *etxeko hizkuntza kaleko hizkuntza* eredu dikotomikoa (euskera etxeko hizkuntza dela suposatzen duena) mantendu ordez, etxean bertan ere hiztunek gaztelaren alde egiten dutela. Beraz, erabilera, etxean ere bai, gaitasunaren azpitik dabil. Bestetik, nahiz eta fideltasun dezentea izan, ezin dugu ahaztu nahikoa dela taldekide bat euskalduna ez izatea hizkuntza ohitura aldatzeko, izan ere, guraso bat erdalduna izatea, nahikoa da hainbat unetan familia osoak gaztelaniaz egiteko.

Adinaren arabera, 20-34 (%25) eta 5-19 (%24) tartean daude elebidun kopuru handienak. Elebidun hartzaileen multzo handienak (euskeraz “nekez hitz egin edo, hitz egin ez arren, “ondo” ulertu edo irakurtzen dutenak) 20-34 tartean (%41) eta 35-49 tartean (%30) daude eta erdaldun elebakarrak, batez ere, 35-49 (%30) eta 50-64 (%27,4) tartean. Berriz ere aipatu beharra dago gaitasuna bermatuta dagoen arren, erabilera arloa izan litekeela ahulena. Eta aurreko atalean *ama hizkuntza* eta *etxeko hizkuntza* alderatu ditugunean esan den moduan, bestelako kontuek baldintzatzen dute euskeraren erabilera, hala nola, ingurune euskaldunean bizi ala ez, eskolatik kanpo euskeraz berba egiteko ohiturarik badagoen, etab. Horregatik, adin-tarte hauek harrobia izanik, jarraipen sakonagoa egin beharko litzateke beste esparru horiek hobeto ezagutzeko.

Bestalde, *elebidun hartzaileak* kopuruei buruz, ondoko gogoeta egin dezakegu: hiztun osoak lortu al ditugu Zergatik bai edo zergatik ez

Hipotesi moduan, pentsatu daiteke *ia-euskaldunen* multzora pasatu diren lagunak euskera ikasten ari direnak izan litezkeela. Horretan oinarrituta, helburu garbia azaltzen zaigu, saiatu behar gara elebidun osoak lortzen, euskalduntze-alfabetatzea indartuz eta planifikatuz, euskaldun osoak izatera heldu daitezen.

Azkenik, irakaskuntzan, D eredia horrela dago: Haur Hezkuntzan %83; Lehen Hezkuntzan, %77,8; DBH eta Batxilergoan, %75 eta %76. Lanbide Heziketan, ostera, %49 baino ez da. Beraz, erronka nagusietako bat, lehen aipatu moduan, Lanbide Heziketan ere euskeraren normalizazioa bermatzea da eta, bestetik, batxilergoan D eredia bultzatzea (A eta B ereduak daude gaur egun), ez baita logikoa unibertsitate aurretik ikaslea erdalduntzea; izan ere, honek joera bideratu dezake unibertsitateko ikasketen ereduaren hautaketan.

HERRIETAKO DATU-BILKETA

Herrietako datu-bilketa aurkeztuko dugu honako atalean. Galdera sorta bat erabili da herrietako datuak jasotzeko (2008ko abenduan jasota). Hortik abiatuta, euskeraren egoera eta euskera atalak dituen baliabideak aztertu nahi izan dira. Herrien artean bi multzo egin ditzakegu: Euskera Zerbitzua daukatenak eta ez daukatenak. Lehenengoen artean hauek ditugu: Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Otxandio eta Zaldibar. Udalerri hauetan berezko giza baliabide eta aurrekontuak daude euskera atalean

Datu-bilketa egiteko *Alkarbideko* fitxak hartu ditugu oinarritzat, bertan agertzen diren datuak eredu izanik herrietako egoera eta baliabideak ezagutzeko.

Abadiño

Udala

Ez dago euskera planik udal mailan. Hainbat egitasmo jorratu dira, besteak beste, dirulaguntzak ematea euskera ikasteko, 2005ean onartutako Euskeraren Erabilera Normalizatzeko ordenantza, gaur egun bertan behera dagoena..., baina euskera planik ez dago. Izan ere, Euskeraren erabileraren normalkuntzarako plana egiteko Bizkaiko oru Aldundiaren dirulaguntza jasotzeko eskabidea egin du Euskera Zerbitzuak aurten.

Euskera Zerbitzuan itzultzailea eta euskera teknikaria daude. Lehenengoak 20 urte inguru daramatza eta bigarrena hasi berria da.

Azken udal hauteskundeetan nagusitu eta gero, gobernu taldeak Hezkuntza eta Euskera Batzordea sortu zuen.

Aurreko urteko aurrekontuak luzatu dira, 2008an 80.079 eurokoa izan da Hezkuntza eta Euskerarako, aurrekontu orokorraren %1,2 gutxi gorabehera.

Une honetan aurrekontuak egiteak du lehentasuna eta udal barruko erabilera planaren diagnostikoa eta diseinua martxan ipintzea.

Udal langileak 80 inguru dira. Dagokien hizkuntza eskakizuna betetzen ez dutenak 1 edo 2 baino ez dira.

Ordezkaritza politikoaren artean, 13 denera, 5ek ez dakite euskera. Bestalde, batzordeak (11) gaztelaniaz egiten dira.

Irakaskuntza

Hauek dira ikastetxeak:

Zelaietako eskolan, Haur eta Lehen Hezkuntza dago, D eredukoak. 13 talde dira, hau da, 201 ikasle.

Traña-Matiena Herri eskolan, Haur eta Lehen Hezkuntzan, B ereduko bi talde (5. eta 6. maila) daude (28 ikasle); D ereduan, berriz, 18 talde daude (322 ikasle).

Traña-Matienako institutuko DBH: B ereduan, 3 talde (50 ikasle); D ereduan, 8 talde (110 ikasle).

Estatutik kanpoko ikasleei dagokienez, Zelaietan 5 ikasle; institutuan 6, Traña-Matienako Herri Eskolan, 24 ikasle.

Ikastetxeetan euskera plana dago. Eskoletan bertso klaseak, kultur ekitaldiak, kanpo ekintzak..., jorratzen dira guraso elkarten bitartez.

Euskalduntze-Alfabetatzea:

Euskaltegirik ez dago, baina AEKren irakasleak etortzen dira klaseak ematera Errota kultur etxera. Hiru talde daude: bi guraso talde eta mintza praktikarako bat. Datorren urtean Berbalagun proiektua martxan ipintzen hasteko asmoa dago. Dirulaguntzak ere badaude euskera klase edo ikastaroetarako joatearren.

Teknologia berriak

Ordenagailuetan hizkuntza nagusia gaztelania da. eb-orrian elebidun moduan aurkezten bada ere, gaztelera nagusitzen da.

Merkataritza-ostalaritza

Merkataritza-ostalaritzan ez dago egitasmorik edo diru-laguntzarik. Enpresa munduan ere ez.

Aisia eta elkarteak

Hainbat elkarte dabilta herri mailan (Anbotoko azpiko damak, antzerki taldea, dantza taldeak, bertso-eskola...) Euskera nagusi da talde batzuetan, baina beste batzuetan erderaz egiten da. Aisia arloan, Gaztetxearekin lotutako taldea dago (Kokomarro), euskeraz egiten dituen ekimenak.

Kirola

Kirol arloan ez dago udal langilerik. Udal kiroldegia enpresa batek kudeatzen du, bertako 16 langileetatik guztiak dira euskaldunak, garbiketako 2 izan ezik. Ikastaro guztiak gaztelaniaz dira. Ez dago bestelako hitzarmenik.

Osasuna

Abadiño-Zelaieta osasun zentroan, 4 langile daude. Haietako bi euskaldunak dira (harrerakoa eta pediatra); medikuak eta praktikanteak, berriz, ez dakite euskeraz.

Traña-Matienako zentroan, 16 langile dira, guztira (administrariak, erizainak eta medikuak). Erizain bi dira euskera ez dakitenak.

orpus plangintza eta euskeraren kalitatea

orpus plangintzari dagokionez, duela hainbat urte eginda, Abadiñoko lexikoa eta aditzari buruzko liburua osatu zen.

Hedabideak

Herriko aldizkaririk ez dago. Euskerazko hedabideen arloan, Durangaldeko Anboto astekaria eta irratia dira aipatu beharrekoak. Durango telebista ere hartzen da, baina honetan gaztelaniaz egiten da batez ere.

Arlo honetan udal mailan ez dago hizkuntza irizpiderik. Diru-laguntza Anboto astekariari ematen zaio.

Kulturgintza

Txanporta Kultur Etxea, Errota Kultur Etxea eta Mediateka daude herrian. Kulturgintzan, ez dago hizkuntza irizpiderik. Urtean 50 ekitaldi inguru egiten dira eta horietatik %60, gutxi gorabehera, euskeraz egiten dira.

Atxondo

Udala

Udal mailan ez dago euskera planik. Erabilera planik ez dagoen arren, UEMAren bitartez trebakuntza saioak egiten hasi dira udal langileei begira. Ez dago euskera arlorako berezko aurrekonturik. Euskera eskoletarako diru-laguntza badago.

Udal langileak 9 dira. Hizkuntza Eskakizunak aterata daude, sortu berriak diren lanpostuenak (3) izan ezik.

Ordezkaritza politikoak euskaldunak dira. Osoko bilkura eta batzordeak nagusiki euskeraz egiten dira, nahiz eta gaztelera ere hitz egin.

Irakaskuntza

Ikastetxe bat dago, D eredukoa. Haur hezkuntzan, 31 ikasle daude eta Lehen hezkuntzan, 43. Ikasle atzerritarrak 21 dira.

Teknologia berriak

Ordenagailuetan, gaztelera erabiltzen da.

Aisia eta elkarteak

Aisi talde eta herritarren taldeei dagokienez, 6 talde aipatu daitezke. Lautan euskeraz egiten dute eta besteetan, gaztelera.

Osasuna

Kontsultategiko langileek euskeraz badakite.

Hedabideak

Hedabideen arloan, badago herriko aldizkaria (hilabetekaria), euskeraz egiten dena, zati txiki bat izan ezik. Bestetik, Anboto astekariari diru-laguntza ematen zaio.

Kulturgintza

Emanaldietan hizkuntza irizpideak ezarrita daudela esan liteke, zinea kenduta, beste dena, normalean, euskeraz egiten baita.

Berriz

Udala

Euskera plana badago, Berrizko Euskera Biziberritzeko Plana, hain zuzen. Erabilera plana, baita, 2003-2007rako egina eta orain 2008-1012 bitartean martxan dagoena. Euskera Zerbitzuan langile bakarra dabil lanean. Bere zereginak honakoak dira: itzulpenak egitea, ekintzak bideratzea, dirulaguntzak bideratzea, udaleko langileei baliabideak eskaintzea. Azken aurrekontua 120.000 ingurukoa da, aurrekontu orokorraren %2 gutxi gorabehera.

Egitasmo nagusienak transmisio arloan kokatzen dira, irakaskuntza eta euskerazko aisialdi eskaintzekin lotuta, eta euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko helburua ere kontuan hartuta.

Udal langileei dagokienez, 28 inguru izanik, %75ek du dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta. Politikarien artean (11), berriz, bik ez dakite euskeraz. Bost batzorde egiten dira, bi elebitan eta beste hirurak gazteleraz.

Irakaskuntza

Bi ikastetxe daude herrian. Bat LH eta HHkoa (Learreta Markina ikastetxea) eta bestea DBHkoa (Berriz institutua). D ereduak biak. HH eta LHko Learreta Markina ikastetxean 440 ikasle inguru ditugu, Berriz institutuan 130 ikasle daude. Guztira 570 ikasle inguru. Espainiar estatutik kanpokoak: Lehen Hezkuntzan, 23; Bigarren Hezkuntzan, 9 (32, denera).

Ikastetxeek euskera normalizatzeko talde egonkorra dute, ikasturte osorako ekintzak antolatzen dituenak. Udaleko euskera zerbitzuarekin etengabeko harremana izaten dute. Euskera indartzeko saioei dagokienez, esan behar da gurasoentzako euskera klaseak daudela eguerditan. Ikasle etorkinentzako ere errefortzu klaseak daude astean behin.

Euskalduntze-Alfabetatzea:

Herrian bertan ez dago euskaltegirik, baina Udalak azpiegiturak eskaintzen ditu eta Durangoko AEK-k herrian ematen ditu klaseak. Guztira hiru talde daude Berrizen: EGA prestatzeko talde bat, goi-mailako talde bat, eta guraso taldea. Auto-ikaskuntzan ere badabiltza ikasle batzuk. Guztira, 28 ikasle dabiltza ikasten.

Horretaz gain, Berbalagun egitasmoa ere badago Berrizen. Egitasmoan, 20 lagunek eman dute izena 08-09 ikasturtean. Bestalde, AISA talde bat osatzeko asmoa bazegoen arren, 08-09 ikasturteko 3 ikaslek soilik eman zuten izena, eta ez da talderik osatu. Horrelakoetan, Durangoko euskaltegira bideratzen dira ikasleak.

Euskera ikasteagatik dirulaguntzak jasotzen dituzte ikasleek, asistentziaren araberakoak direnak.

Teknologia berriak.

Ordenagailuetan eta eb orrian euskera eta gaztelania agertzen dira. Euskerazko programak langileen eskura jartzen dira.

Merkataritza-ostalaritza

Euskera bultzatzeko egitasmoa dago: "Erosi euskeraz" kanpaina. Era berean, itzulpen laburrak edo errotuluak egiteko aukera ere eskaintzen da.

Enpresa munduan ez da egitasmorik egin.

Kirola

Kirol arloan, 6 udal langile daude. Denek dute dagokien hizkuntza eskakizuna, batek izan ezik. Guztira, 28 ikastaro garatzen dira. Umeenak euskeraz egiten dira, helduenak, aldiz, definitu gabe daude, hau da, izena ematen dutenen arabekoak izaten dira. Zenbait puntutan hizkuntza irizpideak finkatuta daude. Begirale guztiek dakite euskeraz, errotuluak elebidunak dira eta umeentzako ikastaroak euskeraz dira.

Osasuna

Osasun publikoan 11 langile daude. 4 medikutik 3k dakite euskeraz, pediatrik baita, 4 erizainetik batek daki; harreran 2 langile daude, horietatik batek daki euskeraz; beraz, guztira, 6k dakite euskeraz.

orpus plangintza eta euskeraren kalitatea

2008an Berrizeko ohitura eta gertaerei buruzko liburu bat egin zen eta horrekin ikastetxeetarako fitxa didaktikoak sortzeko asmoa dago. Toponimia beka bat jartzeko asmoa ere badago. Gabonetan gutun lehiaketa antolatzen da. Bestetik, Euskera Sailak 2009rako agenda bat sortu du.

Hedabideak

Herriko aldizkaria, Berriztarra, elebiduna da. Diru-laguntza Berriztarrari eta Anbotori ematen zaie.

Kulturgintza

Kulturgintza arloan hizkuntza irizpideak adostuta daude. Haurrentzako eskaintza (ia %100a) euskeraz da eta helduentzako emanaldi gehienak ere euskeraz dira: antzerkia, ikastaroak... Hala ere, zinea, normalean, gaztelerazkoa da, euskerazko eskaintza oso txikia baita. Beraz, emanaldi gehienak (%75) euskeraz dira.

Durango

Udala

Durangorako datuak 2008an egindako *Durangoko Udalaren Euskeraren Egoeraren Diagnostikoa* izeneko txostenetik aterata daude.

Euskera plana (EBPN) garatzen ari da gaur egun. Udal barruko erabilera plana ere gauzatzen da administrazio arloan. Politikarien artean, %55 dira euskaldunak. Horren harira zera aipatzen da txostenean: “udalbatzaren euskaldunen batez bestekoa udalaren indizearekin bat dator”. Txostenean, batzordeei buruz ematen den informazioak euskaldun kopuruari egiten dio erreferentzia: 8 batzordetik, hirutan partaideen %65 euskaldunak dira, beste hirutan %50-56 arteko kopurua dugu eta gainontzeko bietan %72-75 arteko kopurua. Txostenaren arabera, beraz, *euskeraren ikuspuntutik erabilera bultzatzeko aukera eskaintzen duten batzordeak badira, batez ere Berdintasuneko Batzordea*. Hori horrela izanda ere, txostenean bertan esaten da batzorde guztiek gaztelaniaz egiten dituztela bilerak.

Euskera Sailean lau langile daude (euskera teknikaria (itzulpenak ere egiten dituen), administrari laguntzailea (Kultura arlokoa ere dena), eta Berbaroko bi teknikari (plan estrategikoaren dinamizatzailea eta Hitzarmenatarako teknikaria).

Udal langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila %82,57koa da. Udal langileen hizkuntza gaitasuna eta administrazio atalen erabilera datuak azterturik, Udala egoera onean dagoela esan daiteke. Erabilera-datuei begira, berriz, *herritarrei begira euskeraren erabilera altuagoa da langileen artekoa baino eta langileen gaitasuna erabilera-maila baino askoz handiagoa da*.

Aurrekontuari dagokionez, 2008an 197.840 euroko aurrekontua aipatzen da. Soldatak sartu gabe, euskerarako zatia aurrekontu osoaren %1,5 da.

Irakaskuntza

2006-2007ko datuak ematen dira txostenean. Haur eta Lehen Hezkuntzan zein DBH-n ez dago matrikulaziorik A ereduan. Haur Hezkuntzako B eta D ereduak kopuruak, hurrenez hurren, 424 eta 1100 ikasle dira.

Lehen Hezkuntzan, berriz, 572 ikasle daude B ereduan, eta 1113 D ereduan. DBHko matrikulazioan, aldiz, B ereduan 390 daude eta D ereduan, 662.

Azkenik, batxilergoan, A ereduan (azken urtean %13,5eko jaitsiera izan ondoren) 141 ikasle daude, B ereduan, 77 ikasle eta D ereduan, 608. Azken honek %4,8ko hazkundera izan du.

Lanbide Heziketari dagokionez, honako hauek dira datuak: Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloan B ereduan 106 ikasle daude eta D ereduan, 17. Goi-mailan, berriz, A eredua dago oraindik (11 ikasle), B ereduan, 145 ikasle daude eta D ereduan, 49.

Beraz, D ereduak nagusitasuna du beste ereduakiko, Lanbide Heziketan izan ezik.

	A eredua	B eredua	D eredua
Haur hezkuntza		424	1.100
Lehen hezkuntza		572	1.113
DBH		390	662
Batxilergoa	141	77	608
Lanbide heziketa	11	251	66

Hizkuntza Normalkuntzako programak (Ulibarri Programaren barruan) zortzi ikastetxetan garatzen dira (publikoak zein pribatuak izanik), eta euskeraren arloan, besteak beste, motibazioa, ezagutza eta erabilera jorratzen dituzte.

Ikasle atzerritarrak direla eta, txostenaren arabera, 2006-2007 ikasturtean 211 egon dira matrikulatuta. Hauetatik, %9,5 A ereduan, %67,8 B ereduan eta 22,7 D ereduan. Honen harira, atzerriko ume eta gazteen integrazioarako bertoko hizkuntza giltza den aldetik, *Atzerritarren Inmigrazioa Durangon* izeneko txostenean esaten da *baliabideak ez direla nahikoak*. Modu berean, “kiroldegietan, kulturako ikasgeletan edo euskaltegietan parte hartzen duten etorkinen kopurua txikia da, eta zerbitzu horien erabiltzaileen kopurua ez da korrelatiboa udalerririk duen biztanleria atzerritarrarekiko” aipatzen da.

Bestetik, “oso ondo baloratzen dute Landakoko eskolan guraso etorkin eta bertakoen artean sortutako elkarlanerako taldea”.

Euskalduntze-alfabetatzea

Arlo honetan zera esaten da txostenean: “euskaltegietak matrikulazioa %15,3an jaitsi da azken sei urteotan. Nolanahi ere, 2003tik hona nahiko egonkor mantendu da”. 2006-2007 ikasturtean 438 ikasle ibili dira euskaltegien (258 Udal Euskaltegian eta 180 AEKn). Azpimarragarriak dira Landakoko guraso-taldeen arrakasta eta etorkin taldeen asistentzia egonkorra. Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialari dagokionez, 2007-2008 ikasturtean 986 ikasle matrikulatu dira (453, ofizialak eta 533, libreak). Kontuan hartu behar da ikasleen kopuru handia Bizkaiko beste udalerrietatik datorrela.

Berbalagun ekimenean 2007-2008 ikasturtean 92 lagunek eman zuten izena eta ekimenaren inguruko balorazioa oso ona izan da.

Euskera indartzeko saioak programa ere garatu da, Durangoko eskoletan ikasten ari diren 5 eta 16 urte bitarteko ume eta gazte etorkinei zuzenduta, eskola orduetatik kanpo, modu ludikoan. 2008ko ekitaldian 112 partehartzaile izan dira, gehienak (%85) B ereduan matrikulatuta (gainontzekoak, D ereduan dabilta).

Merkataritza-ostalaritza eta enpresak

*Dendaketa*n egitasmoan merkatariei zuzendutako euskera-ikastaroak garatu dira. *Guk Euskeraz* egitasmoa 1997an hasi zen jorratzen, hitzarmena izenpetuta elkarleen eta Udalaren artean, euskera erabiltzeko gutxieneko konpromisoari eutsiz. Hitzarmenak kideak irabazi ditu urtetik urtera. Merkatariei emandako zerbitzuetan (itzulpena eta aholkularitza batez ere) goranzko joera nabarmentzen da. Bestalde, diru-laguntzak ere badaude (errotulu eta eb guneak euskeratzeko).

Bestelako enpresetan ez da egitasmorik abian jarri.

Kirola

Durangoko Udalaren Euskeraren Egoeraren Diagnostikoa izeneko txostenaren arabera, “Udal Kirol Erakundearen dauden langileen jakite-maila ona da, udalaren

batez bestekotik (%82,57) hurbil". Hala ere, 66 ikastaroetatik, gehienak azpikontrataturako langileek bideratzen dituzte eta langile horietatik %28k daki euskeraz, udalerriko indizearen ia erdia. Gainera, ez omen dago hizkuntzaren aldeko irizpiderik ezarrita ikastaroetan. Kirol-zentro pribatuetan datuak jaso eta gero, "badirudi arlo pribatuan zein publikoan irakasle euskaldunak aurkitzeko zailtasunak badaudela eta horrek nolabait eskaintza baldintzatzen duela". Horretaz gain, ez omen dago euskera sistematikoki erabiltzeko ohiturarik.

Aisia, elkarteak

2000. urtean 62 elkarte hartu zuten parte egin zen hitzarmenean, 2007an 66 izan dira. Arlo horretan, beraz, euskeraren alde ari dira ekintzak jorratzen. Gainera, datozen urteotan elkarteekiko hitzarmenari berriro heltzeko asmoa dago.

Osasuna

Datu-iturri moduan darabilgun txostenaren arabera, Landakoko zentroan hizkuntz gaitasunari buruzko betetze maila langileen artean %26,70 da, eskasa, beraz. Izan ere, hainbat arlori dagokien indizea %80koa den arren (Osakidetzako euskera planaren arabera), Landakoko zentroan ematen dena horren erdira ere ez da iristen. Espezialitateen zentroan, berriz, ezagutza-mailaren indizea 31,35ekoa da, nahiz eta euskera planak ezarrita dauzkan helburuak eta ezagutza-maila lortuta egon.

Hedabideak

Herriko argitalpen berezirik ez dago. Eskualdeko *Anboto* astekariaren 4.160 ale banatzen dira Durangon. Horretaz gain, beste hiru aldizkari ere banatzen dira, *Kmon*, elebiduna da, eta gainontzekoek (*ronicas del Duranguesado* eta *Oiz*) euskerari tarte gutxi eskaintzen diote.

Durango Irratiak udalarekin dauka hitzartuta euskeraren presentzia. Bestalde, *Anboto Irratiak* euskera hutsezko programazioa dauka.

Durango Telebistan, aldiz, ez dago gutxieneko irizpiderik ezarrita euskerarekiko.

Argitalpenak

Aipatu beharra dago Durangoko Diska eta Liburu Azoka, gaur egun ere saihestu ezinezko erreferentzia nagusia dena euskal kulturarentzat.

Bestetik, urtero *Julene Azpeitia* lehiaketa egiten da, ipuin eta bertso-paperak sortzeko atalak dituen.

Kulturgintza

Txosteneko datuak ardatz izanik, honako hauek aipatuko ditugu:

Urtero *Euskal Astea* egiten da, Udalak antolatuta.

San Agustin kultur gunea. Kultur eskaintzari dagokionez, azken urteotan euskeraz erdia inguru izan da. Haurren ekitaldien kasuan badago euskerazko lanak kontratatzeko politika definituta eta helduentzako hiruhileko bakoitzean gutxienez euskerazko ikuskizuna ematen da. Ikusle kopuruari dagokionez, 2007an %69 euskerazko emankizunetara joan zen.

Bestalde, ekitaldiak egiteko aretoa hartu denean (alokatuta), ekitaldien %51,25 euskeraz izan dira.

Plateruena Kafe Antzokia. Berbaroren eskutik sorturikoa, euskerazko ekintza-emanaldiak eskaintzen ditu. 2007an 30.100 lagun ibili ziren ekintzetan, bai kontzertuetan bai kultur ekintzetan (2.400).

Zugaza zinema. Urtean 2-3 film eskaintzen dira euskeraz. 2007an 1.313 ikusle joan dira horiek ikustera.

*Berbaro elkarte*a. 400 bazkide inguru dira. 20 urtez proiektu eta ekitaldi ugari bultzatu dituzte, besteak beste, Anboto irratia eta aldizkaria, Kafe Antzokia, Merkataritza-ostalaritzako ikastaroak, ume-gazteentzako ekitaldiak... Parte-hartzaileak ere ugari izaten dira, hainbat arlotan kopuruak goranzko joera islatuz. Gainera, bere zerbitzuak inguruko hainbat herritan ere eskaintzen dira.

Musika Eskola. Udalaren Erabilera Planaren barruan dago. 21 langiletik 18k egiaztatu dute Hizkuntza Eskakizuna. Bi irakaslek, baina, ez dakite euskeraz.

Arte eta Historia Museoa. Hamaika langile dira eta guztiek dute euskeraz aritzeko gaitasuna. Hitzaldi zikloetan, gutxienez hitzaldi bat euskeraz izatea bermatzen dute (%25).

Elorrio

Udala

Elorrioren EBPN garatzen da gaur egun. Dagoeneko, 2005-2008 tarteko plangintzari dagokiona amaituta dago. Erabilera plana ere martxan dago. Euskera zerbitzuan bi langile daude: itzultzailea eta euskera teknikaria.

Gaur egun lehentasuna duten egitasmoak hauexek dira: *Geurien* euskera hitzarmena. Merkataritza-ostalaritza arloan, zerbitzuetan, eta herriko elkarteetan eta aisi taldeen arloetan egindako hitzarmenari esker Elorrioko 180 eragilek baino gehiagok euskera indarberritzeko konpromisoa hartu dute.

Udal langileak direla eta, Hizkuntza Eskakizunen derrigortasun indizea beteta dago. Bestalde, politikarien artean, 13tik 12 euskaldunak dira. Batzordeak eta osoko bilkura euskeraz izaten dira.

Aurrekontuekin jarraituz, azken aurrekontua, soldatak eta dirulaguntzak barne, 332.634 -koa da (Udalaren aurrekontu osoaren %2,4), euskeraren ekintzetarako, 115.250 (%0,86 osoarekiko).

Irakaskuntza

Elorrioko bost ikastetxeetan 900 ikasle inguru biltzen dira. D ereduko matrikulazioak dira guztiak. Horrez gainera, hiru haur eskola daude eta hauetan ere euskerazko eredia eskaintzen da. Eskoletan normalizazio-planak jarri dituzte abian. Ikasle atzeritarrei buruzko datuak hauexek dira: Txintxirrin ikastolan, 7 ume (0-10 urte bitartekoak); institutuan, 3 ikasle; Goiko eskolan (Elorrio, LH), 10 ume; Lourdes ikastetxean, 5.

Euskalduntze-alfabetatzea

Abizari euskaltegia dago. Bertan, 50 bat ikasle dabilta. Berbalaguna eta Aisa egitasmoa ere abian jarri dira. Gurasoentzat ikastaroak eta tailerrak ere eskaintzen dira. Etorkinei begira, *Euskeratze* deituriko proiektua dago martxan, euskerara hurbildu daitezzen ahaleginduz.

Bestalde, Udalak herritarrentzako diru-laguntzak ematen ditu.

Merkataritza-ostalaritza

Geurien hitzarmena da egitasmo nagusia. Herritarrentzako aholkularitza, zerbitzuak eta diru-laguntzak eskaintzan dira.

Enpresa mundua

Arlo honetan lehen urratsak ematen hasi dira, Elhuyar fundazioaren bitartez.

Kirola

Udal kiroldegiko langileak azpi-kontratazioan daude. Egoera horretan, nahiz eta hizkuntza irizpideak finkatuta egon, horren gaineko jarraipena egitea gaitza da. Bestelako kirol taldeekin ez da egitasmo edo irizpiderik finkatu.

Aisia, elkarteak

Orokorrean, elkarte gehienak ele bietan aritzen dira. Hala ere, elkarte mota desberdinak bereiztu daitezke:

- Batez ere euskeraz aritzen direnak (Intxorta asti taldea, Besaide dantza taldea...)
- Ele bietan aritzen direnak (argazki elkarteak, Elorrioko Rugby taldea, Kainabera...)

Gazteen artean, Gaztetxean, esate baterako, gaztelaniaz aritzeko joera omen dago.

Erakunde batzuek euskeraz funtzionatzen dute, baina kanpo harremanetarako gaztelerara jo beharra izaten dute.

Elkarteek euskeraren inguruko arazo, interes eta beharrak, batez ere herriari begira ikusten dituzte, ez euren erakundeei begira.

Aipatutako arazo gehienak euskeraren prestigio falta eta kontzientzia faltarekin lotzen dituzte. Beste arazoetako bat euskeraren ezagutza da.

Elkarteek ikusten dituzten beharrak:

- sentsibilizazioa
- itzulpenak egiteko laguntza
- zenbait elkartetan hizkuntza-ohiturak aldatzea
- gurasoentzako euskera ikastaroak antolatzea
- eskolaz kanpoko ekintzetarako monitore euskaldunak lortzea

- herriko erakundeek zerbitzua euskeraz eskaintzea
- euskerazko baliabideen inguruko informazioa jasotzea (ikastaroak, aldizkariak, eb-guneak...)
- herriko elkarte gehiagok euskeraren aldeko konpromisoak hartzea

Honen harira, Intxorta taldeak konpromisoari eutsiz, begirale euskaldunak eta euskaltzaleak ditu ekintza guztiak euskera hutsean burutu daitezten.

orpus plangintza eta euskeraren kalitatea

Udalak liburu bi argitaratu ditu eta Durangaldeko euskalkia zaintze aldera bertoko komunikabideak diruz laguntzen ditu. Liburu bat toponimiari buruzkoa da eta bestea Balentin Berriotxoaren idazki-bilduma (“Neure amatxo maitia” izeneko gutun bilduma) agertzen du. Bestalde, Elorrioko hizkeraren gaineko lana egiteko asmoz, herriko zaharrei grabazioak egin zitzaizkien. Gainera, AEK-k bizkaiera ikastaroa eskaintzen du urtero.

Hedabideak

Anboto astekaria eta irratia dira, eskualde osoan bezala, euskerazko komunikabideak Elorriorako ere. Anbotori diru-laguntza ematen zaio. Bestalde, Txantxibiri irrati librea ere badago, euskeraz eta erderaz emititzen duena.

Kultura arloa

Arlo honetan hizkuntz irizpideak ezarrita daude. Ekitaldi gehienak (zinearen mugak kontuan hartuta), euskeraz egiten dira, haurrentzakoak den-denak. *Arriola kultur aretoa* dugu Elorrioko kultur aretoa, egitarau egonkorra eskaintzen duena. Balio askotako gunea ere bada (kafe-antzerkia, musika, ikastaroak...). Bere kudeaketa ekonomikoa mistoa da, Elorrioko Udalak eta Arriola Kultur Elkarteak egiten baitute

Garai

Udala

Udalerrian ez dago euskeraren inguruko planik. Aurrekonturik be ez da zehazten. Udal langileak (4) euskaldunak dira. Ordezkarri politikoak (7) ere euskaldunak dira eta batzordeak euskeraz egiten dira.

Garain ez dago ikastetxerik. Bestalde, euskera ikasteko, herritarrak beste herri batera joaten dira.

Merkataritza-ostalaritza

Taberna bi daude, bietan euskeraz egiten da.

Aisia

Dauden taldeek (dantza taldea, jai batzordea, jubilatua) euskeraz jarduten dute.

Osasuna

Kontsultategian bi mediku aritzen dira, bat euskalduna eta bestea ez.

Kulturgintza

Arlo honetan egiten diren jardunak euskeraz egiten dira normalean.

Iurreta

Udala

Udalerrian ez dago euskera planik ezta udal barruko erabilera planik ere. Euskera zerbitzurik ez dago. Euskeraren inguruko egitasmoak Kultura arloaren barruan jorrotzen dira. Bertan antolatzaile, administrari eta itzultzaile funtzioak betetzen dira euskeraren egitasmoei begira. Esleitutako aurrekontua 12.800 eurokoa da. Urteko plangintzan euskeraren aldeko egitasmoak definitzen dira. Udal langile guztiek badute euskeraz komunikatzeko gaitasuna.

11 ordezkari politiko daude eta erdiak euskeraz daki. 5 batzorde egiten dira. Osoko bilkura euskeraz egiten da, eta batzordeak, arlo edo gaiaren arabera erderaz edo euskeraz, esaterako, kulturakoak euskeraz jorratzen dira.

Irakaskuntza

Maila guztietan D eredia dago, Lanbide Heziketan izan ezik. Azken honetan A eredia (40 ikasle) eta D eredia (254 ikasle) daude. Juan Orobiogoitia ikastetxea (DBH) eta lurreta Institutua (Lanbide Heziketa) Ulibarri programa barruan daude. Maiztegi eskolan, berriz, barruko euskera plana jorratzen dute. Euskera indartzeko saioak ere guztietan egiten dira. Ikasle etorkinei dagokienez, Orobiogoitian talde berezia dago aterpetxeetan bizi diren ikasleek osatua (22 ikasle). Lurreta Institutuan, aldiz, A eredian daude ikasle etorkinak (Administrazio Kudeaketa ikasten), eta Maiztegi eskolan, 13 etorkin daude.

Euskalduntze-alfabetatzea

Euskaltegirik ez. Gurasoentzako ikastaroak antolatzen dira, era ludikoan (kantak, ipuinak...). Euskera ikasteko, herritarrei diru-laguntzak ematen zaizkie.

Teknologia berriak

Kz gunean ordenagailuak euskeraz eta gazteleraz daude. Udaletxean eta Kultur etxean, erderaz. Eb orrian, hizkuntza aukeratzeko agertzen da.

Merkataritza-ostalaritza

Arlo honetan ez dago egitasmorik edo hitzarmenik, ezta diru-laguntzarik ere.

Enpresa mundua

Arlo honetan ere ez da ezer jorratu.

Aisia eta elkarteak

Herriko hainbat taldetan (Amezketondo, Montoste, Aita San Migel Jai Batzordea, Dantza Taldea...) euskera da nagusi. Beste batzuetan (Txonpolo, adibidez) hainbat batzarretan erderaz egiten da, erdaldun elebakarrak

daudenean. Bestalde, aisia arloan egitarau oparoa prestatzen da udalerrian, eta euskerari, hain zuzen ere, egitarau horren bitartez bultzakada ematen zaio (euskeraren ludikoa).

Kirola

Arlo honetan ez dago euskeraren inguruko egitasmorik antolatuta.

orpus plangintza eta euskeraren kalitatea

Iurretako Elizateko Euskera eta Toponimia izeneko liburua argitaratu zen (Alberto Erraztik idatzia, 1994an).

Hedabideak

Herri mailakorik ez dago. Anbotori diru-laguntza ematen zaio.

Kultura arloa

Emanaldietan hizkuntza irizpideak badaude. Nagusientzako ikuskizunetan, %50 euskeraz izaten da. Umeentzakoetan, berriz, dena euskeraz egiten da. Ikastaroetan, %20 euskeraz da (besteak beste, gurasoentzako ikastaroak).

Izurtza

Udala

Udal euskera planik edo udal barruko erabilera planik ez dago. Hala ere, udal barruko egoerari begira, UEMArekin lanean ari dira trebatzeko saioak egiten. Udal barruko plangintza, beraz, neurri batean bideratuta dago eta horri esker, UEMArekin egindako hitzarmenak egoera berria ekarri du.

Euskera arlorako ez dago aurrekonturik zehaztuta.

Udal langileek (5) euskera maila egokia dute (dagokien hizkuntza eskakizuna lortuta edo maila altua izanda).

Ordezkaritza politikoak (7) euskaldunak dira, bat izan ezik (berba egin ez arren, ondo ulertzen duena). Batzordeak eta osoko bilkura euskeraz eta gazteleraz egiten dira, eta aktak ere elebidunak dira.

Irakaskuntza

Ikastetxerik ez dago. Bestalde, euskera ikasteko Durangora edo beste leku batera joan beharra dago. Euskera ikasteko, hala ere, ez dago diru-laguntzarik.

Teknologia berriak

eb orria euskeraz agertzen da. Aplikazioa erderaz dago.

Enpresa

Enpresa munduan ez dago egitasmorik.

Aisia

Talde batzuetan (Dantza taldea, jubilatuek) euskeraz egiten da normalean. Beste batean (Argintxu) euskeraz eta gazteleraz.

Kirola

Gimnasia talde bat dago, monitorea euskalduna izanda ere, erderaz egiten da erdaldun elebakarrak daude eta.

Osasuna

Kontsultategiko langileak euskaldunak dira.

Kultura arloa

Hizkuntza irizpiderik ez, baina emanaldiak (jaietan eta) euskeraz egiten dira.

Mañaria

Udala

Ez dago euskera plangintzarik ezta udal barruko erabilera planik ere. Behar denean, udal langileek egiten dituzte itzulpenak.

Aurrekontu finkorik ez dago euskerarako.

Egitasmo nagusiak honako hauek dira:

-administrazio mailan: udaletxean egiten den lana euskeraz garatzea, erabilitako dokumentazioa euskeraz edo elebiduna izatea, herritarrek euskera

erabiltzeko daukaten eskubidea posible egitea, herritarrei zuzendutako erantzunak euskeraz egitea besterik eskatu ezik.

-herrian: herri mailan antolatzen diren ekintzetan euskera oinarri hartzea, herritarrekin erabiltzen diren komunikabideak euskeraz izatea (kontrakoa berariaz eskatu ezik): hileko kulturgintzari buruzko esku-orri informatiboa, eb orria, etab.

Udalean bost langile daude. Euren euskera maila altua da, denek dute beraien lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizuna.

Zazpi ordezkari politiko daude. Gehienek euskera maila altua daukate.

Hiru batzorde egiten dira (Hirigintza, Ogasuna eta Kultura). Hirurak euskeraz.

Irakaskuntza

Ikastetxerik ez dago Mañarian. 2009an Haurreskola berria irekiko da.

Euskalduntze-alfabetatzea

Euskaltegiko talderik ez dago. Durangoko Euskaltegietan edo bestelako euskaltegi ofizialetan matrikulatutakoei, matrikula kostuaren erdia ordaintzen zaie.

Teknologia berriak

eb orrian euskera eta erdera aukeratu daitezke baina, lehendabizi, Mañariko eb orria irekitzen denean euskera azaltzen da.

Aisia eta elkarteak

Ursula Donea Jubilatuen Elkartean, Andra Mari Dantza eta Abesbatza elkartean, Mañaria Bizirik elkartean eta Gazteen taldean euskeraz egiten da.

Kirola

Mañariko Pilota Eskola dago. Euren euskera maila altua da. Ume eta gazteentzako ikastaroak antolatzen dituzte, euskeraz.

Osasuna

Osasun publikoan bi langile daude. Daukaten euskera maila erdizkoa da.

Kulturgintza

Hizkuntza irizpide moduan hartuta, antolatzen diren ekintzak euskeraz izatea dute helburu, hala betetzen da ia %99an. Urtero hamar emanaldi inguru egiten dira, eta orokorrean euskeraz izaten dira. Ikusle gehienak ere euskaldunak izaten dira.

Otxandio

Udala

Euskera plana (EBPN) 2008an hasi zen garatzen. 2008tik ere erabilera plana jorratzen da. Euskera Zerbitzuan, euskera teknikaria dago, lanaldi murriztuan (erdia betetzen du). Bere ardurapean herriari begirako euskera plana eta erabilera planaren ardura eta koordinazioa daude.

Euskera arlorako aurrekontua 35.440 eurokoa da, orokorraren %1,2.

Egitasmo nagusiak: gazteen alorrean, erabilera handitzea. Era berean, gurasoen erabilera maila handitzea. Eta udalaren barruan hizkuntza irizpideak finkatu eta betetzen hastea.

Udal langileak 8 dira. Sei langilek dagokien hizkuntza eskakizuna atera dute, eta gainontzekoek ez daukate hizkuntza eskakizunik.

Bederatzi ordezkari politiko daude, denak euskaldunak. Bestalde, batzordeak eta osoko bilkura, euskeraz egiten dira (Osoko bilkuraren akta, euskeraz eta gazteleraz idazten da).

Irakaskuntza

Otxandio herri eskolan D ereduak dago. Bertan 115 ikasle daude eta eurretatik 17 dira kanpotik etorritakoak. Euskera plana badago, Ulibarri programaren barruan. Etorkinekin ere euskera indartzeko saioak egiten dira. Gurasoekin ere lana bultzatu nahi da, erabilera maila indartzeko ahaleginetan.

Euskalduntze-alfabetatzea

AEKren eskutik, bi talde daude martxan, denera, 15 ikasle dabilta (hasierako maila eta mintza praktikoa).

Teknologia berriak

Ordenagailu gehienak euskeraz daude. eb orrian, hizkuntza aukeratzea eskatzen da hasieratik.

Merkataritza-ostalaritza

Arlo honetan euskera bultzatzeko egitasmoak badaude, izan ere, UEMA hasi da Otxandion arlo hau jorratzen.

Enpresa mundua

Arlo honetan ez dago egitasmorik.

Aisia eta elkarteak

Dauden elkarteak (mendigoizaleak, jubilatutak, Korua...) euskeraz aritzen dira.

Kirola

Hizkuntza irizpideak ordenantzan finkatuta daude. ulcano kirol elkartearekin hitzarmena dago sinatuta.

Osasuna

Kontsultategiko bi langileak euskaldunak dira. Kontsultategian, *Berria* egunkaria egoten da.

orpus plangintza eta euskeraren kalitatea

Otxandioko hizkerari buruzko ikerlana (2008) eta Toponimiari buruzko ikerlana burutu dira.

Hedabideak

Anboto (eskualdekoa); *Inkernuz*, Euskera Batzordeak ateratzen duen aldizkaria, (urtean 3 ale); eta *Guzurmaiko*, udal aldizkaria, (2 ale urtean).

Kulturgintza

Hizkuntza irizpideak ezarrita daude. Emanaldi gehienak euskeraz egiten dira.

Zaldibar

Udala

Zaldibarko datuak 2008an egindako *Zaldibarko Udalerriko Euskeraren Egoeraren Diagnostikoa* izeneko txostenetik aterata daude.

Euskera Zerbitzuan langile bat dago, itzultzaile eta teknikari lanetan aritzen dena. Udaletxeko itzulpenez gain, EBPNren eta Udal barruko erabilera planaren kudeaketaz arduratzen da.

Udal langileei begira, hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila %85 da. Gaitasun aldetik, udala egoera onean dago. Erabilera neurtu ez den arren, gaitasuna baino askoz baxuagoa omen da.

Udalbatzako ordezkari politikoak 11 dira, eurretatik 7 euskaldunak (%63,6). Euskera gaitasunaren aldetik, batzorde guztiak berdintsu agertzen zaizkigu, guztietan %60ko euskaldunen dentsitatearekin.

Premia handiko arloa da Euskeraren Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantzak onartzea.

2008ko aurrekontua 179.707 eurokoa da. Soldata sartu gabe, euskerarako aurrekontua 132.346 -koa da, udal aurrekontu osoaren %1,42.

Zaldibarko kaleko erabilera %19,1 izan zen 2006an, hau da, aurreko neurketetan baino askoz baxuagoa (1996an, %26,7 eta 2002an, %29,8). Hala ere, metodoa oso ezberdina izan da hiru neurketak egiteko, beraz, ez dago parekatzerik.

Irakaskuntza

Zaldibarren eskola bakarra dago, D ereduakoa. Guztira 231 ikasle daude (106 Haur Hezkuntzan eta 125 Lehen Hezkuntzan).

Normalizazio ekintzen egitarau zabala dute Zaldibarko eskolan. Ekintza batzuk zuzenean erabilera bultzatzera bideratuta daude.

Gaur egun Zaldibarko eskolan bederatzi dira kanpotik etorritako ikasleak (2008an, etorkinen indizea Zaldibarren %6 da).

Euskalduntze-alfabetatzea

2008 2009 ikasturtean 24 ikasle ibili dira, hiru taldetan: EGAn eta 2-3 urratsetan (talde bat guraso taldea da).

Berbalagun ekimena ere martxan dago, 20 bat lagunekin.

Teknologia berriak

Udaleko eb orria euskeraz eta gazteleraz agertzen da. Kz gunean programatutako ikastaroetan euskeraz egitekoek pisu handia zuten (%67). Hala ere, programatutako guztietatik bakarrik %18 egin da, eta horietatik bakarrik %19 izan dira euskeraz (sei ikastaro guztira).

Elkarteak, Merkataritza eta enpresa

Hiru esparru hauek Eixu elkarteak kudeatutako Bolo-Bolo ekimenaren barruan daude, baina azken urteotan ez dute jarraipenaz arduratzeko inor izan, eta ondorioz ekimen hori bertan behera geratuta dago.

Dauden kultur elkarte guztietatik (bederatzi, ditugun datuen arabera), batzuk pertsona bakarrekoak dira, beste batzuk urtean ekintza bat egiten dutenak, eta beste batzuk krisialdian daude.

Euskerari dagokionean, Merkategi fitxategian jasotako datuen arabera, 45 dira Zaldibarren zentsatutako saltokiak. Bolo-Bolo barruan egindako diagnostikoaren arabera, horietako langileetatik erdiak inguru euskaldunak dira, Beraz, esan genezake Zaldibarko lau saltokitik hirutan bezeroak euskeraz hitz egiteko aukera izan dezakeela. Euskeraz bizi nahi duten zaldibartarrek aukera hori izan dezaten bideak ez daude, baina, jorratuta.

Aisialdia

Zapatublai ekimena 3-12 urte bitarteko umeen artean aisialdian euskeraren erabilera sustatzeko Udal Euskera Zerbitzuak abiatutako egitasmoa da eta Txatxilipurdi elkartearen eskutik bideratzen da. Umeak hamabostean behin elkartzen dira, larunbatetan, eskolako lokaletan. Hizkuntzaren lanketa zeharkako helburu moduan jorratzen dute, helburuen deskribapenean bigarren mailan geratzen da (helburu nagusi bezala balioak lantzea agertzen da).

Bestalde, Gaztelekua euskera sustatzeko 12-16 bitarteko gazteei zuzendutako ekimena da. Hiru talde dabilta, adinaren arabera sailkatuta. Hiru talde hauen jokabidea aztertuta, adinean gora egin ahala euskerarekiko sentiberatasuna handitu egiten dela esan daiteke.

Gaztetxea

Gaztetxetik dabiltazan gazteek jakin badakite euskeraz, baina euren artean gaztelaniaz aritzen dira. Orokorrean, erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz adierazteko.

Kirola

Udalak baditu kiroletarako azpiegiturak (futbol zelaia, pilotaleku bi, kiroldegia, rokodromoa eta arku-tirorako azpiegitura, besteak beste) eta baliabide horiek utzi egiten dizkie eskatzen duten talde edo herritarrei, baina ez dago udal zerbitzu bezala antolatuta: ez dute horretarako giza baliabiderik esleituta eta ez dago irizpide orokorrik erabilera arautzeko.

Osasuna

Kontsultategian, sei langiletik lauk euskeraz dakite (% 60); erizain bat eta lan-jardun erdiz dagoen medikua dira ez dakitenak.

opus plangintza eta euskeraren kalitatea

“Zaldutik Zaldibarrera. Toponimian barrena” eta “Zaldibar Berbarik Berba” argitaratuta daude. Bestalde, azken urteotan Zaldibarko historiaren alderdi bati buruzko koaderno monografikoak argitaratu dira.

Hedabideak

Ez dago bertako egunkari, irrati edo telebistarik. Arlo honetan Anboto da baliabide aipagarria.

Kultura

Badira urtero errepikatzen diren zenbait ekitaldi edo programa (trikitixa txapelketaren antolakuntza, Zaldibar Doinutan, etab). Horietatik batzuk (trikitixa txapelketa, San Esteban eguna, ume eta gazteei zuzendutako guztiak) euskera hutsean egiten dira. Gainerakoetan hizkuntza biak erabiltzen dira. Gaur egun ez dago hizkuntzaren tratamendurako irizpide formalik.

DMA

Durango Merinaldearen Amankomunazgoa 1971ean eratu zen. Erakundearen bulego nagusiak Astolako Etxean daude, Abadiñon kokatuta. Gaur egun zortzi udalerrri dira Amankomunazgoaren kideak: Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.

Durango Merinaldearen Amankomunazgoaren eskutik, ondoko zerbitzu hauek eskaintzen dira:

- ✚ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- ✚ Drogamenpekotasunen prebentzioko zerbitzua
- ✚ Adineko pertsonen dinamizazioko arloa
- ✚ Ingurugiroari begirakoak
- ✚ Kirol instalazioak
- ✚ Durangaldeko Behargintza (Enplegu zerbitzua)
- ✚ Lanerako prestakuntza zentroa
- ✚ Kontsumitzailearen informaziorako udalen bulegoa (Kiub)

Udalerrietako ordezkari politikoak arduratzen dira erakundearen kudeaketaz.

Langileei dagokienez, 37 lanpostu daude Amankomunazgoan. Lanpostuei hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezarri zaizkie.

Jarraian, erakundearen organigrama dago txertatuta.

DMA

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA

Ogasun eta Administrazio Publikoa

Ogasuna

- Kontuhartzailletza.
- Aurrekontuak
 - Programazioa.
 - Urte anitzeko gastuak.
 - Langileen eta aurrekontu-plantillaren gastuak.
- Kontabilitatea
- Inbentarioa
- Diruzaintza

Modernizazioa eta Administrazio Publikoa.

- Antolaketa eta araubide juridikoa.
- Informazioaren teknologia.
- Kontratazioa eta zerbitzuak.

Giza baliabideak

- Giza baliabideak kudeatzea.
 - Organizazioa eta lanpostuak.
 - koordinazioa
 - Lan-itunpeko langile funtzionarioak hautatzea.
 - Ordainsariak.
 - Langileen erregistroa.
 - Langileak trebatzea.
- Lan-harremanak.
 - Negoziazioa.

Gizarte Zerbitzuak

- Gizarte Zerbitzuak eta besteren laguntza behar dutenak.
 - Oinarrizko gizarte zerbitzuak.
 - Gizarteratzea.
- Umeak, gazteria, emakumeak eta familiak.
- Adineko pertsonak.

Drogamenpekotasunen prebentzioa.

Enplegua eta enpresen garapena

- Enpleguari begirako orientazioa.
- Lan-munduratzeara.
- Trebakuntza.
- Autoenplegua.
- Enpresen garapena.

Ingurumena.

- Hondakinak batu eta tratatzeko zerbitzua.
- Iraunkortasuna eta agenda 21.

Kultura, Euskera, Kirola eta Kontsumoa

- Kirol instalazioak.
- Kultura eta kirol jarduerak.
- Euskera.
- KIUB.

ONDORIO NAGUSIAK

Eskualdeko euskeraren egoeraren gaineko ondorio argiagoak atera ahal izateko, komeni da irakurketa bikoitza egitea, batetik, eskualde mailakoa eta, bestetik, udalerrien berezkotasuna kontuan hartuta.

9.1 Eskualde mailako irakurketa.

Hizkuntza gaitasuna eta transmisioa

Aldagai eta ezaugarri soziolinguistikoek egoera osasuntsua eta indar potentziala erakusten dituzte. Batetik, biztanleria gora doa (2001-2008 tartean, hazkunde tasa %8,4). Biztanleen adin-talde nagusienak 35-49 eta 20-34 urte bitartekoak dira, hau da, garrantzitsuak diren taldeak belaunaldi berriak hazi eta hezteko. Eskualdearen izaera euskalduna da, bertako biztanleriaren jatorrizko hizkuntza euskera da eta gaur egun ere portzentaje handiak jatorrizko hizkuntzari eusten dio, %52 baitira euskaldunak (2006ko datua). Honen inguruan esan behar da azken hamarkadetan etengabea izan dela igoera (1981ean, %41; 1986an, %43; 1996an, %50; 2006an, %52). Pozgarria, beraz, emaitzek azken urteotan islatzen duten bilakaera soziolinguistikoa.

Honekin lotuta, hala ere, *ia euskaldunak* (%22) kopuruaren inguruko hausnarketa egin behar dugu. Izan ere, multzo hori horrela izendatzeko irizpideak argitu eta sakonago aztertu beharko lirateke ondorio garbiagoak atera ahal izateko, hau da, hizkuntza gaitasunari begira, zein trebetasun menperatzen duten, zein ez, etab. Dena den, multzo horretakoak euskaldun osoak izatera iristea gure helburua izanik, horretarako bideak eta baliabideak aztertzeari ekin beharko genioke, batez ere, euskalduntze-alfabetatze arloarekin lotuta.

Hortaz, hizkuntza bilakaera ikusita, etorkizun itxaropentsua espero daiteke, beti ere, hezkuntza alorrean euskerazko ereduak etengabe aurrera egiten badu.

Gaur egun, D ereduak nagusi da hezkuntza mailetan, orokorrean hartuta.

Azkeneko hamarkadan D ereduak nabarmen egin du gora maila guztietan. 2001-2002 ikasturteko datu ofizialekin alderatuta, ondoko taulan D ereduak izan duen gorakada ikusi daiteke:

<i>D ereduaren bilakaera</i>	2001-02	2006-07
<i>Haur hezkuntza</i>	%78,7	%83,4
<i>Lehen hezkuntza</i>	%71,3	%77,8
<i>DBH</i>	%53,2	%75
<i>Batxilergoa</i>	%59,4	%76
<i>Lanbide Heziketa</i>	%38,3	%49,3

Mailaz maila begiratuta, hala ere, B ereduaren indarra ere begi-bistakoa da hainbat esparrutan: Lanbide Heziketan, %44; DBHn, %25; Lehen Hezkuntzan, %22.

Bestetik, A ereduari dagokionez, batxilergoan, A ereduaren kopurua %15ekoa eta Lanbide Heziketan %6koa da.

Beraz, datuek euskerazko irakaskuntzaren aldeko jarrera argia erakusten dute eta, ondorioz, ikasleagoaren baitan emandako aldaketak nabarmenak dira. Ildo horretatik jarraitu dezagun ikasle eta gurasoekiko eraginkortasuna bultzatze aldera, ekimen bateratuak jorratzeak berebiziko garrantzia dauka, eta hori planifikatzeko, eskualdea, bere osotasunean, hartu beharko litzateke kontuan, eragile guztien partaidetza ere eskualde mailan bermatuz.

Ezagutzari buruzko datuekin jarraituz, adinarekin erlazionatuta ikusiko ditugu. Adin-tarteei erreparatuz, elebidun (euskera dakitenak multzo honetan daude) kopuru handiena (%25) 20-34 urte bitartean dago eta ondoren datorren kopurua (%24), 5 eta 19 urte bitartekoa da. Biztanle gazteenek ematen dute euskaldun kopuru handiena. Gazteen portzentajea egitasmoetan eta helburuetan aintzat hartu beharko da. 20-34 bitartekoei dagokienez, guraso eta hezitzaile izateko aukera handia eskaintzen duten neurrian, lehentasuna eman behar zaie

euskeraren ondorengoetaratzeari eta hiztunak sortzeari begira. Bestetik, talde gazteenak kopuru handienetakoa emateak nolabaiteko bermea ziurtatzen du hizkuntza-gaitasunarekiko. Hain zuzen ere, adin tarte honek ematen du erdaldun elebakarren kopuru txikiena (%3,3). Hori horrela, hizkuntza-gaitasuna gaztetasunarekin lotuta dagoela ondorioztatu daiteke. Hortaz, etorkizunerako aurreikuspen baikorra egin dezakegu.

Erdaldun elebakarren multzo handiena (%30) 35-49 adin tartean izanik, datu horretan ere arreta jarri beharko dugu, hizkuntzaren transmisioari begira, lagun horiek ere sasoi eraginkorrean daudelako. Umerik izatekotan, erdaldun elebakar horiek euskeraren aldeko apustua egin dezaten (D eredua), erakartzeko baliabideak eskaini beharko ditugu. Guraso erdaldunei zuzenduriko ekimenak ardatz hartuta, eskualde mailako plangintza orokorra jorratzeari garrantzia handia eman behar zaio, sasoi jakin batzuetan (matrikulazio sasoiak, besteak beste) eraginkortasuna handiagotu egingo delako.

Erabilera

Erabilera esparruan ikusgai ditugun datuen arabera, hiztunen erabilera ohiturak ez datoz bat ezagutza mailarekin. Hizkuntza gaitasunaren indizetik espero zitekeen erabilera ez da betetzen eskualdean, ezta herrietan ere (banaka hartuta). Jatorriz euskaldunak diren lagunak %35 izan arren, bakarrik %23k hitz egiten du euskeraz etxean, hau da, 12 puntu gutxiago. Hala ere, euskera eta gaztelera, biak batera, hitz egiten dutenak %15 dira, beraz, neurri batean euskeraren erabilera igo egiten da datu honen arabera. Azkenik, jatorriz erdaldunak (%56) direnek baino hiztun gehiagok (%62) egiten dute gaztelera, soilik, etxean. Badirudi gizartean ematen den egoera diglosikoak eragina duela etxeko ohituretan ere, gaztelera, gizarteko esparru gehienetan bezala, etxean ere jatorrizko hizkuntzari nagusitzen baitzaio. Aztertu beharko litzateke, bestela, etxean euskeraz egiten duten hiztunen tipologia, hau da, zein den euskaldun berrien kopurua eta zein jatorrizko euskaldunen kopurua, hizkuntzaren inguruko ohiturak hobeto aztertzeko.

Hizkuntza ohituren esparruan dugu, gaur egun, erronka nagusia. Erabileraren kopuruetan zerikusia duten faktore guztiak aztertu behar dira egoera aldatu dezaketen giltzak zeintzuk diren ezagutzeko. Erabileraren eragile nagusienetakoak diren aldetik, motibazioa eta euskeraren prestigioa kontuan hartzea ezinbestekoa da desorekaren arrazoiak hobeto ulertzeko.

Erabileraren esparruan, baita, esku-hartze eta plangintzaren ardatzak topatu ditzakegu. Horretarako, eragiteko sektoreetan, eskualde mailako azterketa egiteak onura handia ekarriko luke, eskualde osoa bere baitan hartuko lukeen ekintza-plana jorratzeko asmoz. Besteak beste, honako sektoreetan planteatu daiteke eskualde mailako plangintza:

- ✚ Kirola eta aisialdia
- ✚ Lan mundua: enpresak
- ✚ Merkataritza-ostalaritza
- ✚ Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea

Eskualdeko hizkuntza planifikazioak adostua eta bateragarria behar du izan. Eskualdeko baliabideen optimizazioa ahalbidetzen duen zerbitzu integratzailea eratzea proposatzen dugu.

Euskeraren inguruko egitasmoei dagokienez, gaur egun herrien arteko koordinazio eskasa dago. Beraz, Amankomunazgoko Euskera Zerbitzuaren ekimenez, elkargunea eskaini behar da herri guztietako eragileak elkarlanean aritzeko eta prozedura arrakastatsuen bilgune izan dadin.

Administrazio atalean, herri bakoitzak udal barruko erabilera plana du. DMAko Euskera Zerbitzuaren ardura Amankomunazgoaren erakundearen erabilera plana bideratzea da.

Administrazioari begira, udalen arteko koordinazioa ere eragingarria izango litzateke arlo jakin batzuei begira, hala nola, hizkuntza irizpideak herrietan nola dauden zehaztuta aztertzea, zein prozedura dauden jarraipena egiteko, zernolako komunikazio planak jorratzen diren, etab. Azken baten, informazio trukaketa eginez, prozedura eraginkorrenak identifikatuko dira, guztiontzat probetxugarriak izan daitezten.

9.2 Udalerrien gaineko irakurketa

Udalerrri bakoitzaren berezitasun eta baliabideen arabera irakurketa egiteko asmoz, ezaugarri eta beharrian nagusiak laburbilduko ditugu honako atalean.

Sei udalerrrik Euskera Zerbitzua dute. Hala ere, kopurua handiagoa izan beharko litzateke; izan ere, biztanle kopurua eta ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta, lurretari ere balegokioke euskera zerbitzua edukitzea (aldagai hauei begira, Zaldibarren parekoa da).

Euskera Zerbitzua dutenetan, hainbat premia sumatzen dira giza baliabideak kudeatzeari begira. Haietako batzuetan (Berriz, Otxandio eta Zaldibarren) euskera zerbitzua dinamizatzaile bakarrak osatzen du (Otxandion, lan-jardun erdiz). Hainbatetan, euskera teknikariaren zereginen proportzio bat itzulpen eta administrari lanekin lotzen da. Egoera hauek zereginen metaketa sortzen dute. Ondorioz, euskera zerbitzu bakoitzaren baldintzak eta beharrak hala eskatuta, behargin kopurua handitzeko aukera aztertu beharko litzateke.

Baliabide moduan eta praktikotasunari begira, zenbait egitasmo garatzeko ohiko bidea kanpoko enpresak eta erakundeak kontratatzea izaten da. Dena den, biderik egokiena Euskera Zerbitzua indartzea izango litzateke.

Euskera zerbitzua duten herriek EBPN eta erabilera plana garatzen dituzte gaur egun, nahiz eta Abadiñon oraindik lehen pausuak ematen egon (teknikaria hasi berria da lanean).

Hala ere, araubide eta hizkuntza irizpideei begira, oraindik hutsuneak sumatzen dira, euskera zerbitzurik ez dutenetan ez ezik zerbitzua dutenetan ere. Horrela, Abadiñon, Otxandion eta Zaldibarren horren premia dago gaur egun ere.

Hezkuntza eta gazteria funtsezko esparrua dela eta, D eredia nagusia da eta ikastetxeetan euskera plana dago. Hala ere, B eta A eredia oraindik badaude ikastetxeetan. Jasotako datuengatik, *erabilera* da sustatu beharreko esparrua, gaztetxoan artean erderaz egiteko joera dagoelako, eskolan bertan ere. Honekin lotuta, guraso taldeekin estuago lan egiteko beharra nabarmentzen da

(sentsibilizazioa, ikastaroak..). Bestalde, ikasle etorkinen kopurua ere igotzen doa herri guztietan, beraz, hor dago beste lan-esparru bat.

Gazteen hizkuntza ohiturak direla eta, jasotako hainbat adierazpen aipatuko ditugu:

Harrigarria bada ere, ikasketa-prozesu osoa euskeraz egin duten gazteak ere gaztelaniaz erosoago eta baliabide gehiagorekin sentitzen dira (Zaldibarko txostena).

Umeak nagusitzen joan ahala (teorian euskerazko gaitasuna handitzen doan neurrian), gero eta gaztelania gehiago erabiltzen dute. Ikasgelan ere bai (Zaldibarko txostena).

Gazteen artean, erderaz egiteko ohitura omen dago (Elorrio).

2002an Siadecok egin zuen datu-bilketa kontuan hartuta, aurrerapauso nabarmenak eman direla esan dezakegu: bi udalerrri gehiagok dute euskera zerbitzua, euskera planak garatzen dira eta esparru jakin batzuetan urteetako ibilbide emankorra jorratu da egitasmo nagusien inguruan. Esaterako, hitzarmenen bitartez euskera sustatzeko lan handia egin da merkataritzan eta elkarte sektoreetan.

Euskera Zerbitzurik ez izan arren, beste udalerrietan ere euskeraren esparruan aurrerapena egon da (Atxondon eta Izurtzan UEMArekin lanean dabilta, lurretan, egitasmo egonkorrak jorratzen dituzte urtero...).

Hedabideen esparruan, Anboto (astekaria eta irratia) dugu komunikabide garrantzitsuena eskualde osoan, dituen zabalkunde eta sustapenagatik (udalen diru-laguntza barne). Gainera, hainbat herritan euskeraren presentzia bermatzen duten aldizkariak badira (Atxondo, Berriz, Durango, Otxandio). Hala ere, komunikabideetan euskera bultzatzeko premia egon badago (Durango telebista...).

Beste arlo batzuk, aldiz, ia jorratu gabe daude gaur egun. Hauen artean, kirola eta enpresa aipatu ditzakegu. Eremu hauetan, hain zuzen, antzematen dira Amankomunazgoaren ekimena bultzatzeko premia eta mikroplanak ezartzeko beharrezana.

Orokorrean, hizkuntza irizpideen definizio, ezarpen eta jarraipenerako sistematizazioaren beharra dago esparru guztietan. Horretarako, helburu egingarriak adostuta, esleipenetan euskeraren irizpidea ezartzea da helburua, kontratazioetan eta diru-laguntzetarako. Bestalde, erabileraren gaineko plangintzan, euskeraren inguruko komunikazio planari garrantzia eman behar zaio. Modu berean, adierazle-sistema egokia sistematizatu behar da erabilera neurtzeko.

Kultura eta aktibitate eskaintzaren esparruan ere, euskeraren presentzia sustatzeko, urtean-urtean helburuak eta epeak jarritz, emanaldien euskerazko kopurua handitzea izan behar da helburua.

Bestetik, sustatu beharreko beste arlo batzuk ondokoak dira:

- herritarren partaidetza
- herri bakoitzeko erakunde desberdinak elkarrekin aritzeko formulak adostea
- Motibazioa lantzea: euskeraren prestigioa bultzatzea
- orpus plangintza jorratzea (euskalkia, toponimia, historia...)

DMAko EUSKERA ZERBITZUAREN IZAERAREN INGURUAN

Euskeraren normalizazioaren esparruan, Amankomunazgoaren izaerari dagokio herri erakundeen arteko harremana, elkarlana eta osagarritasuna bultzatzea, gaur jorratzen dituen gainontzeko esparruetan egiten den moduan. Horrela jardunez gero, eskaintzen diren zerbitzuetan herri guztien indar, eragile eta baliabideak optimizatzea lortzen da.

Euskera Zerbitzuaren antolaketari buruz hausnartzeko, urrats batzuk eman dira dagoeneko, dauden ereduak eta aukerak aztertzeke asmotan. Horrela, eredugarriak izan daitezkeen beste Euskera Zerbitzu batzuekin harremanetan jarri ondoren, egitura eta egitasmoen inguruko proposamena idatzi eta aurkeztu zen Astolako etxean, abenduaren 17an egin zen batzarrean.

Batzarrean, udalerrietako ordezkariak egon ziren, Garaikoa izan ezik. Batzarrean aurkeztutako proposamena jasotzen duten idazkiak eranskinetan aurkezten direnez, atal honetan laburpen moduko aipamen batzuk baino ez dira azalduko.

Proposamena biltzen duten idazkiak hauexek dira:

Euskerako egitasmoak elkarlanean garatzeko

DMAko Udalak eta Euskera Zerbitzua: koordinazioa eta funtzioak

Euskerako egitasmoak elkarlanean garatzeko idazkian, esparruak definitzeko asmoz, jasotako ekarpenak jasotzen dira.

Koordinazioa eta funtzioak idazkian, lan egiteko proposamena aurkezten da (lan taldeak eratzeari buruzko proposamena).

Aurkeztutako proposamenak Euskera Zerbitzu batzuek egindako ekarpena du oinarri. Izan ere, mankomunitate mailan funtzionatzen duten Euskera Zerbitzuen egitura eta jarduteko sistema hartu ditugu eredutzat Durangoko Amankomunazgoko Euskera Zerbitzua eratzeari begira.

Erreferentzia moduan Mankomunitate batzuk hartu diren arren, garrantzia eman diegu Durangaldeko egoeratik hurbilago egon daitezkeenei. Horregatik, honako Euskera Zerbitzuak aipatuko ditugu, euren izaerari eta zerbitzuen eskaintzari buruzko eredia egokia delakoan:

- Debagoienako Mankomunitateko Euskera Zerbitzua
- Oarsoaldeko Euskera Zerbitzua
- Urola Kostako Udal Elkarteko Euskera Zerbitzua

Euskera Zerbitzu hauek antzekotasuna dute antolaketa eta jarduketaren inguruan. Eskualdeko udalerriek eskualde mailako erakundea osatzen dute, euren helburua zerbitzu eskaintzaren eraginkortasuna eta kalitatea areagotzea izanik.

Udalerrri gehienetan Euskera Zerbitzua dago. Eskualde mailako Euskera Zerbitzuen helburuak ondokoak dira:

- Eskualdeko herrietako lan-ildo komunak identifikatu, aztertu eta egitasmoak martxan jartzea.
- Udalerriz gaindiko normalizazioan eragitea, egitasmoak proposatuz eta ekintzak koordinatuz
- Baliabide ekonomikoak eta teknikoak optimizatzea, horrela baliabide txikiagoak dituzten herriei aukera berdina emanaz.

(iturria: Debagoienako Mankomunitatea).

“Eskualdeko udal euskera zerbitzu ezberdinek antzerako behar eta helburuak dituzte, eta beraz, elkarlan eta koordinaziorako gune mankomunatua sortzea erabaki da. Gure lana elkarlanean jarduteko estrategia eta aukerak aztertu eta ekimen mankomunatu bidez gauzatzea da. Ekimen hauen urratsak udal zerbitzu ezberdinen eraginkortasuna gehitzeko bidetik ematen dira, alde batetik, eta elkarlanean ateratako proiektu-produktuen bidetik, bestetik”.

(iturria: Debagoienako Mankomunitatea).

Astolako batzarrean Amankomunazgoko Euskera Zerbitzua antolatzeko beharria badagoela begi-bistan geratu zen. Horretarako, gaur egun dauden gabeziak eta hutsuneak aintzat hartuta, udalerrri guztien premiak aztertu eta lan-ildoak definitu beharra dago.

“Udalerrri bakoitzak bere aldetik jokatu ordez, eskualdeko helburu, proiektu, irizpide eta ekintzak bultzatu behar dira (beti ere herri bakoitzaren izaera, ezaugarriak, berezitasunak eta autonomia errespetatuz).”

(iturria: Debagoienako Mankomunitatea).

Batzarrean egin ziren adierazpenak *Aktan* bilduta dauden arren, haietako batzuk hemen aipatuko ditugu, erreferentzia modura:

Mankomunitateak bateragile eta bultzatzaile modura jardun behar du, kontuan hartuta non dagoen bakoitza eta zelan bateratu ekimenak.

Hiru esparru jorratu behar dira: baliabideak, gabeziak eta proiektuak, hau da, ze ekintza definitu.

Aztertu eta adierazi behar da Durangaldean zelako premia ikusten dugun, eta horrela, lehen urterako plangintza egin. Denok batuz gero, merkeagoa ateratzen da, ez dago dudarik. Beraz, ondo adierazi behar da herri bakoitzak ze premia daukan eta zeintzuk diren Durangaldeko premiak, eskualde mailan.

Daukagun egoeran kokatu beharra dago, Euskera Zerbitzua daukatenak eta ez daukatenak kontuan hartuz. Mankomunitatetik bi edo hiru ekintza urtean bultzatu daitezke.

Proiektu horretan egitasmoak zehaztu beharko dira eta, esaterako, hiru egitasmo batera landu.

Azkenik, zenbait egitasmo aipatu ziren Amankomunazgotik bideratzeko egokiak izan daitezkeenak: familia transmisioaren ingurukoak, hezkuntza (Berritzegunearen bidez), Berbalaguna, euskerazko komunikabideak, euskalduntze-alfabetatzea, lan mundua eta merkataritza, kirola...

Aurrez emandako urratsak

Durangoko Amankomunazgoko Euskera Zerbitzua 2002an jarri zen abian Siadecoren eskutik. Hiru urte inguru aritu zen lanean. Zerbitzu hark, besteak beste, egitasmo hauek jorratu zituen:

- DMAko euskalduntze-alfabetatzearen alorreko eskaintza zabaldu eta egokitzeko azterketa, 2004
- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Kirol Elkarteak, 2004
- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Aisialdi Elkarteak, 2004

Aipatu azterlanak burutu ondoren, Euskera Zerbitzua bertan behera geratu zen. Egitasmo horiek gauzatzeko zegoen helburu berari eutsiz, gaur egun eskualdeko Euskera Zerbitzua eratzeko ekimenari heldu diogu, berriz ere. Txostenean azaldu dira horretarako eman diren urratsak, eta dauden egoerak eta baldintzak. Laburbilduz, egitasmo askoren inguruan, eskualdeko udalek indarrak batzea ezinbestekoa da. Bakoitzak bere aldetik jo beharrean, eskualdeko herriek, batuta, indar gehiago egin ahal dutelako euskeraren mesedetan.

ERANSKINAK

Durungaldeko Merinaldeko plana 2009

Orokorra

**Euskarako egitasmoak
elkarlanean garatzeko**

- Udalerriak:

- Abadiño
- Atxondo
- Berriz
- Durango
- Elorrio
- Garai
- Iurreta
- Izurtza
- Mañaria
- Otxandio
- Zaldibar

1.-Sarrera

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko hizkuntza normalizazio eta dinamizazio zerbitzuak, 2002-2004ko tartean Siadecoren eskutik eskaini zirenak, berriz ere berregituratzeko asmoa dago.

2.- Helburuak

Helburu orokorrak:

- ❖ Hizkuntza normalkuntza prozesua Amankomunazgotik ere bultzatzea.
- ❖ DMAko Euskara Zerbitzuak landu beharreko lehentasunezko esparruak identifikatzea eta horiek jorratzeko prozedura martxan ipintzea, EBPN-k markatzen dituen lan-ildoak eta DMAko udalen egitasmo eta proposamenak oinarritzat hartuta.

(Iturria: Siadeco)

Funtzioak:

- ❖ Euskararen normalizaziorako, koordinazio eta eragin gune amankomuna izatea.
- ❖ Merinaldeko Euskara Zerbitzu guztien bilgune izatea.
- ❖ Hizkuntza Planifikazioaren jarraipena egitea.
- ❖ Merinaldeko baliabide eta proiektu guztien bilgune, artikulazio eta bideratze gune izatea.

(Iturria: Berbaro)

DMAko Euskara Zerbitzuak jorratzeko egitasmo guztiak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak zehazten dituen hiru helburu estrategikoetan bildu ditugu:

1.- *Euskara ondorengoetaratzea*

“Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe, ondorengoetaratzea. Euskararen geroratzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz lortzen da, batez ere.”

2.- *Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza*

“Erabiliz zorrotzen da hizkuntza. Erabiltzen ez bada herdoildu ez ezik kamustu ere egiten baita. Horregatik, zaindu behar dira ondo familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kirola, aisia, erlijioa, gune euskaldunenak, enpresa-mundua, administrazioa eta abar. Datozen hamar urteotako erronkarik nagusia, belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza, esaterako, enpresa-mundurako, aisiarako, kirolerako eta komunikabideetarako, produktuen kontsumorako, bai eta funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola, familiako harremanetarako, lagunarterako, gizarteko bizitzarako, kulturarako, eta norberaren burua euskal hiritar jotzeko. Horretarako, euskarazko zerbitzuen “eskaintza” eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu garrantzizkoetara zabaltzea behar da. Euskararen aldeko auzogintza, zerbitzugintza da, hurrengo hamar urteotan, ba herri-aginteez bai euskararen aldeko taldeek egin beharreko ahalegin garrantzitsuena: euskarak bizi-indar osoa edo ohargarria duen bizi-inguru hurbiletan osasun-, hezkuntza-, kirol-, aisia-, eta abarreko zerbitzuak euskaraz edo elebrietan eskaintzea.”

3.- *Euskararen elikadura*

“Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez. Euskara, bigarren hizkuntza gisa, eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio.”

Egitasmoak*

Lehentasunaren arabera, jarri zenbakia egitasmoetan.

- ❖ 1= erabatekoa
- ❖ 2= altua
- ❖ 3= ertaina

HELBURU ESTRATEGIKOA	ESPARRUA	LEHENTASUNA	ZEHAZTAPENA (lan-ildoak)	EKARPENAK-IRADOKIZUNAK (esparru bakoitzean zehaztapan gehiago proposatzea)
Ondorengoetartzea	Familia	1/3/3 erabatekoa: altua: ertaina:	Gurasoak euskararen transmisioaz sentsibilizatzea Ikastetxea eta familia euskararen inguruan uztartzea	Gaur egun beti lehentasuna izan beharko lukeen esparrua da/ Kanpaina bateratuak/SENDI proiektua (Getxon ari dira) → ikusi egin behar hortik zehar dauden adibideak. Akaso ez dugu ezer berririk sortu beharko, nahikoa izango da beste gune handi eta indartsuagoetatik bultzatzen ari direnarekin bat egitea - Kanpainak → horrelakoak Alkarbideren bitartez bideratzen ditugu/
	Irakaskuntza	3/2/3 erabatekoa: altua: ertaina:	Hizkuntza Normalkuntzarako Planen jarraipena D ereduaren hedapena sustatzea	Hizkuntza Normalkuntza Planetarako badago Ulibarri, eta D eredia nahiko zabaldua dago Durangaldean/ D ereduko plangintzen bilakaeraz informatu eta tokian tokiko esperientzien berri zabaldu Lanbide Heziketa euskaraz egiteko/ <u>Berritzegunea</u> +Udalak = bilgunea sortu, elkarrekin lan egiteko eremu horretan eta, batez ere, koordinazioa lortzeko, hau da, ez errepikatzeke han eta hemen gauza bera!/

	Euskalduntze-alfabetatzea	3/2/3 * erabatekoa: altua: ertaina:	Eskualdeko euskaltegien elkarlana bultzatzea	Elkarlana bultzatzeak zer esan gura du? Taldeek elkar ezagutzea agian, ekintza bateratuak antolatzea... hortik aurrerakoa gehitxo iruditzen zait./ Talde berezituak osatzeko erraztasuna beste herri batzuekin bat eginda/- Berbalaguna = batera;- Motibazioa = euskararen mundua prestigiatu eta euskararen alde egindako lana aitortu gizartearen aurrean/
--	----------------------------------	--	--	--

* tauletan udalerrietako ekarpenak agertzen dira

HELBURU ESTRATEGIKOA	ESPARRUA	LEHENTASUNA	ZEHAZTAPENA	EKARPENAK-IRADOKIZUNAK
Erabilera	Administrazioa	2/2/2 erabatekoa: altua: ertaina:	Mankomunitateko langileen erabilera plana	Udaletako erabilera planak kontuan hartu beharko dira; eta alderantziz.
	Enpresa	1/2/2 erabatekoa: altua: ertaina:	Merkataritzan hitzarmenak sustatzea	Beste mankomunitate batzuetan (Urola Kostan, Buruntzaldean, uste dut) hala funtzionatzen dute, eta ondo ari dira./ Merinaldeko zenbait enpresatan batera eta elkarlanean sustatu litezke hitzarmenak./ Eta lan mundua/
	Kirola	1/1/3 erabatekoa: altua: ertaina:	<i>Eskola Kirola euskaraz</i> garatzea Monitore euskaldunak eskaintzea	Eskualde mailako plangintzak. Monitoreen lan boltsa eskualde osorako izan daiteke/- Begiraleak/
	Aisia	2/1/3 erabatekoa: altua: ertaina:	Elkarteen alorreko plangintza	Herrien arteko loturak herrira begira soilik lan egiten duten elkarte/taldeen artean egitea askotan ez da praktikoa izaten. Baliabideak eskeintzea eta, halere, ez da inoiz txarto etortzen./ Elkarren berri izan eta proiektu batzuk batera bultzatzeko plataforma izan daiteke DMAko Euskara Zerbitzua./ - Begiraleak/
	Teknologia berriak	2/3/1 erabatekoa: altua: ertaina:	Teknologia berrietan euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaintzea	Web gunean lotu: beste herrietako egoeraren eta zerbitzuen berri izateko aukera./

HELBURU ESTRATEGIKOA	ESPARRUA	LEHENTASUNA	ZEHAZTAPENA	EKARPENAK-IRADOKIZUNAK
Elikadura	Komunikabideak	3/2/2 erabatekoa: altua: ertaina:	Euskarazko tokiko komunikabideak sustatzea	Anboto hor edukita.../ Jokabideak bateratu eta elkarlana sustatu/- Anboto/
	Kulturgintza	3/1/1 erabatekoa: altua: ertaina:	Kultur programazio iraunkorra sustatzea	Mankomunitate batek egin beharreko/egiteko moduko lana iruditzen zait, baina ez da EUSKARA ZERBITZU baten lana (kultura zerbitzu batentzako, agian bai)/. Eskualdeko kultur zirkuitoak antolatzen ahalegindu./
	Corpus plangintza	3/3/1 erabatekoa: altua: ertaina:	Toponimiaren inguruko ikerketa Euskalkia sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Egindakoa jaso eta zabaltzeko bideak jorratu. Bide berriak aztertu./ Ibilbide toponimikoak prestatu eta ikastetxeetan eskaini - Unitate didaktikoak eskualde mailan - Euskararen erabilera bultzatu eta prestigiatu: eskualdean dauden berbeten inguruan zabalkunde pedagogikoa izan dezakeen zerbait prestatu - Azterketa soziolinguistikoen jarraipena <p>Ikastetxe eta euskaltegiekin batera euskal literatura bultzatzeko programaren bat sortu (jardunaldi, lehiaketa, hitzaldi, mahai-inguru, solasaldi, tailerrak...)</p>

Etorkinak (esparru hau sortu beharko litzateke, daukan pisuagatik ezin delako mugatu euskaltegira)

DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOKO EUSKERAREN EGOERAREN AZTERKETA

DMAko UDALAK ETA EUSKERA ZERBITZUA
koordinazioa eta funtzioak
(batzarrean lantzeko zirriborroa)

- Udalerriak:

- Abadiño
- Atxondo
- Berriz
- Durango
- Elorrio
- Garai
- Iurreta
- Izurtza
- Mañaria
- Otxandio
- Zaldibar

Sarrera

Durungaldeko Merinaldearen Amankomunazgoko hizkuntza normalizazio eta dinamizazio zerbitzuak berregituraketaren ondorioz, lan egiteko egitura osatu beharra dago.

Helburuak

Helburu orokorrak:


- ❖ Merinaldeko udalerriek eta DMAko Euskara Zerbitzuak egitasmoak elkarlanean gauzatzeko beharrezkoak diren koordinazio guneak sortzea
- ❖ Merinaldeko herrietako ahaleginak eta baliabideak optimizatzea
- ❖ Durungaldeko Merinaldearen Amankomunazgoko Euskara Zerbitzuaren egitura eratzea

Funtzioak

- ❖ Egitasmo bakoitzeko eragileak koordinatzea
- ❖ Eskualdean euskara berreskuratzeko bideak eskaintzea, besteak beste, euskara erabiltzeko kanpainak, helduen ikaskuntzaren sustapena eta hizkuntzaren dinamizazio soziokulturala
- ❖ Informazioa, koordinazioa eta elkarreragina ditu funtzionatzeko molde nagusiak

Irizpideak

- ❖ Elkarlana
- ❖ Guztionak eta orokorrak diren beharrianak identifikatzea
- ❖ Erantzun bateratuak ematea



DMAko UDALAK ETA EUSKERA ZERBITZUA

koordinazioa eta funtzioak

(Batzarrean lantzeko proposamena)

Batzorde teknikoa euskera teknikariek osatzen dute, udaletakoek gehi Mankomunitatekoak. Batzorde honek koordinazio foro bat egiten du urte hasieran. Bertan, hutsuneak eta premia amankomunak aztertzen dira eta, ondorioz, egitasmo jakin batzuk aurrera eramatea erabakitzen da. Beraz, lan prozedura jarriko da martxan. Horretarako **lan taldeak** eratuko dira.

Lan taldeak: teknikariek, lan taldeetan antolatuta, garapena emango diete egitasmoei. Horretarako irizpideak *elkarlana eta autonomia* dira.

Elkarlana: lan talde bakoitzeko kideek koordinatuta funtzionatzen dute egitasmoaren inguruan.

Autonomia: lan taldeetan sartzeko edo ez sartzeko erabakia udal bakoitzari dagokio, egitasmoari buruzko lehentasunaren arabera.

Horrela jorratutako egitasmoek mankomunitate mailako hedapena dute helburu.

DMAko euskera zerbitzuari dagokio koordinazio eta zubi lana egitea, lantaldeen artekoa zein batzordeen artekoa, bai eta egitasmoen gaineko ikuskapen eta txosten lanak burutzea ere.

Batzorde politikoa udaletako euskera zinegotziek eta DMAko Kultura, Euskera, Kirol eta Kontsumoko batzorde-buruak osatzen dute. Batzorde honek DMAko teknikariarekin koordinazio foroa egiten du euskera plangintzaren berri jasotzeko.

Batzorde buruak eta DMAko teknikariak koordinazio prozedura ezarriko dute plangintzaren inguruko informazioa modu egokienean jaso ahal izateko.